

[2014ko negua]

*pop  
pilulak*



*“Ezer ez da originala. Inspiratzen zaituen edo zure irudimena elikatzen duen edozein tokitatik lapurtu. Irentsi itzazu pelikula zahar eta modernoak, musika, liburuak, koadroak, argazkiak, poemak, ametsak, zorizko elkarrizketak, arkitekturak, zubiak, kaleko seinaleak, zuhaitzak, lainoak, urezko gorputzak, argiak eta itzalak. Zure arimari zuzenean hitz egiten dioten gauzak baino ez lapurtu. Hori eginez gero, zure lana (eta zure lapurretak) benetakoa izango da. Benetakotasuna oso baliotsua da, originaltasuna ez baita existitzen. Eta ez zaitetz zure lapurretak ezkututzeaz arduratu. Nahi izanez gero, ospa itzazu. Edozelan ere, gogora ezazu beti Jean-Luc Godard-ek esandakoa: “Garrantzitsuena ez da nondik ateratzen dituzun gauzak, baizik eta nora eramaten dituzun”, Jim Jarmusch.*

**Gasolina eta pospoloa:** Julen Azpitarte

**Arnasa:** Irantzu Aurrekoetxea

**Irudia:** Iñaki Landa

**Azala:** Alberto Casina

---

poppilulak@gmail.com  
facebook.com/poppilulak  
@poppilulak

# Aurkibidea

## **Bestiario Galdua**

(Yurre Ugarte)

## **Zinema Kinkia, Kalearen ispilu, mitoen sortzaile**

(Iñigo Basaguren-Duarte)

## **Brane Mozetic eta angustiaren rafagak**

(Juanra Madariaga)

## **Jim Jarmusch, Musika irudikatua**

(Antton Iturbe)

## **Pop-litika**

(Danele Sarrugarte)

## **Beryl Swain, Man uharteko neska**

(Koldo Almandoz)

## **Tresna berriak musika berrien bila**

(Ibon Rodriguez)

## **Salbuespen egoerako poemak,**

(Beñat Sarasola)

## **“Beroa nabari da atzean”, Luxo Perez, Catarsis Rocksteady**

(Ekaitz Goienetxea)

## **Denborak kontzientzia ahaztu duen tokia,**

(Goizalde Landabaso)

## **Sleaford Mods, Kokainak piztutako ahohandia**

(Michiko Kamba)

## **Pop uneak, zinema pilulak**

(Xabier Landabidea eta Eneko Olazabal, Eremuz Kanpo)

## **“The last picture”, Nerabe kontentagaitzak**

(Iñigo Bidetxea)

## **Enarak, Euskal psikodelia katolikoa**

(Julen Azpitarte)

## **Jordi Fornas. Pop diseinua, 60ko hamarkadako Katalunian**

(Pau-Joan Llop)

## **“Morelen asmakizuna”, Zientzia-fikzioaren gailur ezkutua**

(Xabier Sagardia)

# Bestiario

Yurre Ugarte

# Galdua

Logela, nik margotutako kubo bat zen. Gogoan dut. Hiru horma pintura urdin-berdekoak, laugarrena berriz kolore beltz matekoa. Pertsianarik gabeko hiru leihoetan ere beltzak ziren kortina moduan ipinitako plastikozko zabor-poltsak. Ongi pentsatuta, Londresen, 1988an, Eastendeko auzo hartan, beltzaren presentzia ezinbestekoa zen; kolore beltza kaletik logelaraino zuzen-zuzenean eta oharkabean sartu balitz bezala. Kolore beltzak, esan nahi baitzuen: lehenik eta behin punkaren eta post-punkaren beltza; gizaki beltzen beltza, noski; kalezulo haietako pakistandarren begietako kohla; judutarren jantzi beltz distiratsuak; orobat langile british zuri National Frontekoek eta Margaret Thatcherrek partekatzen zuten bihotz beltz-ankerra, zeina auzoko bazter guztietan sumatu zitekeen. Hogei urte inguruan genituen guztiok beltzez janzten genuen, "poppy" edo "casual" posh-pijotero bat izan ezean. Beltza, edo beltzaren aldaera guztiak. Beltza fondoan, gainerako koloreak alboan-gainean-azpian, beltza argitzen, beltza zikintzen, beltza zokoratzen, beltza apaintzen, beltza azpimarratzen. Doluren baten zantzuak? Izan nahi genuen eta artean ez ginenaren doluarenak akaso, ala jada baginena ukatzeak zekarren doluarenak... Bestiario baterako piztia aproposak, edonola ere.

Bo, egunak ematen nituen bideo edizio gelan edota fotoak errebelatzeko eskolako laborategian, nire zinemagintza ikasketak zirela medio. Gauetan, Wardour Streeteko Marquee zerbitzari moduan lan egiten nuen. Zoritxarrez, nire guztizko nituen rock taldeek ez zuten inoiz Marquee jotzen, ordurako heavy metalaren gotorleku bihurtuta baitzegoen areto mitikoa, Marillion, Twelfth Night, Kiss eta enparauen agertoki. Ene bada, Pixiesen lehenengo diskaren urtea zen

eta! *Daydream Nation*ena, jainkoarren! Sugarcubesen *Birthday* singlearena, The Primitivesen *Crash* abestiarena... zorioneko zerrenda agortezina. Barraren bestaldetik heavy adats astintzaileak irentsi behar nik ordea, eta egia aitortzera, pazientzia dezentekoa zuten metalero gehienek nirekin, ingeles slang hertsianean eskatzen zizkidatenean garagardo mota eta marka (niretzat) extralurtarrak. Holaxe, Basque Countryko herri bateko jatorria ahaztuta, squatean, tea eta Tennents zerbeza edanda, liburu-zutabeek eutsitako mesanotxearen gainean auskalo zenbatgarren eskuko *tokata* eramangarri bati musika zeriola, sexu ariketa sakon eta amaigabeetan jarduten genuen mutilagunak eta biok. Kubo ilun eta distiratsu hartan, etengabeko zoriontasunetik gertu. Gainera, hura izorratuko zuen inor ez zebilen inguruan (ez familia, ez aberria, ez eta jainko ahalguztiduna ere).

Ohean, (esan nahi baita: zaborretik jasotako bi koltxoi karratu, boxeo ring baten itxurakoak, bata bestearen gainean) nirekin korapilatu zena Hego Eskualerriko beste herrikka batekoa zen, nahiz eta nabarmendu behar den; haren europeismo-kosmopolitismoa nirea baino askoz zabalagoa zen, Baionan bizi ondoren etorri baitzen Londresera. Elkar ezagutu genuen moduak bazeukan maitagarrien ipuinetako ezaugarri sinbolikorik: herritik bidali zidaten pakete bat entregatu zidan eskura mezulari (artean) ezezagun hark. Kontua da paketearen barruan belusezko minigona arrosa fuchsia bat zegoela. Jakina, objektu horren eragina ekidingo duen pertsonariarik nekez aurki daiteke.

Bada, Aitorrek, ni kanpoan nintzela probestuz, logelako horma beltza zuriz margotu baldin bazuen ere, (hiru dimentsioetako Rothkoren koadro

baten barruan bizitzearen sentsazioa ezabatzeko aitzakiarekin) haren izakera serioa zuritu ezinezkoa zen; ez nuen lortu The Go-Betweenen zuzeneko batera ere nirekin etor zedin, ez eta ere tripi zatitxo nimitxo bat irentsita Primal Screamen batera. Rock kontzertuetan, ezin gure gorputzak elkarren aurka estutu, berotu, samurtu. Dantzan, ni neu jendemasarekin. Ez daukat ahazteko, egia, Durruti Column ikustera Royal Festival Hallera joan ginenekoa, zintzo-zintzo eseri baikinaren nor bere eserlekuan.

Behin, Notting Hillen genbiltzala, *Le Gourmet Gascogne* izeneko delicatessen denda batean sartzea otu zitzaigun; gauzarik merkeena eskatzeko deliberatzen ari ginela, hots, tea plastikozko edalontzian, dendariak ohiko galdera bota zuen sekulako euskal doinuarekin (“uat bud yu laik?”). *Kontxo, nongoa zea?* erantzun nion. Ondarrukoa zen, Gurenda. Orduka lan egiten zuen bertan eta herrira itzultzekotan zelarik, Arlette nagusia ezagutarazi zidan, frantses jatorriko dama ingelesa, ingeles eszentrikoen zerrendako kide purua, izan ere. Laster Gurendaren orde z nabilen ni *Le Gourmet Gascognen*, “uat bud yu laik” esaka, brie baguette, ham baguette, edota Normandy cider saltzen auzoko biztanle aberaskumeei. Dena den, Arlette nagusiaren isla zen denda hura, alegia, sorpresaz beterikoa, (eszentriko bat inoiz ez da monolitiko).

Dendaren albo batetik gora zihoran eskailera igo ezkerrean, Arletteri alokairua ahal zuenetan ordaintzen zion Pit alfonbra saltzaile errusiarraren biltegi-bizitokia zegoen. Pitek goian ozenki entzuten zuen musika kaukasiarra dendako zurezko apalategietako salgaien artean lerratzen zen; zehazki, Frantziako bazter guztietako paté eta sagardoen artean, eta, baita ere... baiki,

baiki! Piperrade Basquaise eta “Ketchup Basquaise” deituriko produktuen artean. Zin dagit. Salgaiok deskubritu nituenean ez nekien harritu ala harrotu behar nuen. Zera, Made in Bayonne “euskal ketchup” zelako hura probatuko al genuen behintzat! Ketchup pota haietako bat etxera eraman nuenean baina, asaldatu ez ezik haserretu egin zen Aitor; bere onetik atera eta ketchup potoa bortizki astindu ondoren, zabaldu egin zuen horma zurian zehar, Pollocken *dripping* baten moduan, hitz bat osatzeko: Baiona. Orain xebebrekeria dirudiena, orduan serio demonio hartu nuen. Hormako “Baiona” hartan hatza busti eta zurrupatu nuelarik (ketchup arruntaren zaporea zuen), abiarazi ninduen Aitorrek urtebete lehenago Baiona Ttipian bizi izan zen etxera, non ETAKo kide-buruzagi zenbaitek bilerak egiten zituzten, non bileren antolatzaile zen etxeko nagusiak “Ketchup Basquaise” delakoa sortzeaz gain, merkaturatu egin zuen. Txantxetan ari al zen?! Urruneko istorio antzu bat zela pentsatu nahi nuen. Ordea, etzan egin zen Aitor, mutu, barneko piztiak begi handi haiek ixtea eragozten zizkiola. Nik berriz, ez nuen iragan *hartaz* ezer jakin nahi, hain baikeunden murgilduta sinbiosi maila gorenean. Zertarako.

Horma, garbitu genuen arren, ez zen itzuli guztizko zurtasunera. Ketchup hura zainetako odola bezain bor-bor zebilkgun barruak nahasten. Hurrengo egunetan koloreen inguruko eztabaida ia ulertezinetan jardun genuen, hau da, esan nahi dena ez esateko esaten den guztiari eman genion tartea.

*Gourmet* dendako lanorduak amaitu zitzaizkidanez, produktu Basquaise haien bezero bakanetako baten etxean jarri nintzen garbitzaile lanetan astean behin, hain zuzen, Asmar izeneko irakiar armadore ohiaren etxean. Erosoa zen

bertan lan egitea, eroso hitzaren zentzu zabalenean: atsedenaldir luzean tea prestatzen zuen... nagusiak berak... datil eta ekialdeko pasteekin prestatu ere; Iraken historiak neukan ezagutza zeharo ondu ahal nuen; kristalak garbitzeko metodo eraginkorra irakatsi zidan (egunkari paper batean txistua bota, mesedez); Marqueen orduko irabazten nuenean bikoitza ordaintzen zuen. Noski baino noskiago, bazeukan Asmar jaunak akats nabarmen bat, eta ez oso orijinala, bide batez esanda: emakumeak biluzik grabatzen zituen. Izan ere, afizio-obsesio historikoa zen harena, Super 8mm zine kamerak existitzen zirenetik (1965) baitziharduen filmatzen paradisuko Evaren kopia oro. Bideo-kasetaren (VHS) garaian bizi ginen hartan, baztertuta zeuzkan ganbaran bai kamera hura, bai muntaketarako moviola. Akatsak opari bihurtu behar zirela sinetsita nabilenez eta kamera aurreko haragi puska bilakatzeko ideia sailhesturik, eskuratu nituen nire hurrengo laburmetraia filmatzeko Asmarren kamera huraxe eta Super 8mm muntaketarako moviola (erlikia paregabea).

Puskaka irensten gintuen hiriak, puskaka irensten genuen guk geuk hiria. Bai Asmar jauna eta bere filmetxo pornografikoak, bai ni eta nire pelikulatxo “artistikoak”, Londreseko faunaren lagin bat besterik ez ginelakoan, gainerako

piztiak filmatzera abiatu nintzen. Super 8mmko zeluloidearen “granulatuak” beste mundu bateko ukitua emango zien irudiei, filmak bestiario fantastiko baten tankera hartzeko adina; hori guztia areagotzeko Mikel Laboaren soinubanda ipiniko genion, gainera.

Ordurako, gure kuboan sustraiak oheburutik zintzilik zebiltzan, lurraren bihotz beltzetik sortutako sustraiak ziren haiek; horma zuria estali ostean gainerako hiru aldeetara zabaldu ziren, gelako angeluak desagerrarazteraino.

Nick Caveren hamaseigarren diskoan gauden honetan, filmatu genuen dokumentu horren bila nabil buru-belarri, digitalizatu eta you tubera igotzeko asmotan; orduan izan ginen piztion erakusgarri, hitzok baino dokumentu fidagarriagoa izango delakoan, ez bairik gabe. Alabaina, ez da inon ageri.

Eta gogora datorkit, behinola, sustraiak jada inbaditu gintuztenean, paretako tarte batean idatzi genuen esaldia, labanarekin eta bi eskutara idatzi ere. Antonin Artauden hitzak ziren, kontsolagarri han iraganean, eta hemen gaur: *Erreala inoiz ez eta egiazkoa beti. (Jamais reel et toujours vrai).*

Iñigo Basaguren-Duarte

# Zinema Kinkia

*Kalearen ispily,  
mitoen sortzaile.*



Espainiar Estatua, behin Franco hilda, aldaketa politiko baterantz abiatu zen, baina gutxi zekiten bidaiaren norabidea. Frankismoak 15 urte lehenago abiatutako aldaketa ekonomikoaren ondorioz, kontsumo gizartea zein klase ertaina errotu egin ziren. Egunsenti berrirantz abiatu behar zen gizartea, SEAT 600 bat gidatuz, Benidormeko hondartzetaraino, gure toallan auzokidearen haragi mengelaz gozatzeko. Baina biztanle guztiak ez zituzten hazkunde ekonomiko horren onurak jaso. Hiri industrialen inguruan auzo marjinalak sortu ziren, landa guneeetatik zetozen etorkinak hartzeko, aurretik kartoizko eta egurrezko txaboletan bizi izan zirenak. Auzo horiek ez zuten inolako azpiegiturarik, lan esku merkea metatzeko erlauntz itxurako eraikin gris eta inpersonalak baino ez. Bada, hauts eta lokatzez beteriko kaleetan sortuko dira gure protagonistak, kinkiak bezala ezagutu zirenak, inolako etorkizunik gabe jaiotako kalekumeak, kontsumo gizarteak eskaintzen zituen ongiaik eskura ez zituztenak, mota guztietako delituak gauzatzeko bandak sortu zituztenak, labankadaz labankada espainiar gizartea izutu zutenak, 70eko eta 80ko hamarkadetan.

Gazte delinkuentziaren fenomenoak hainbat gune bete zituen telebista, egunkari eta *El Caso* bezalako aldizkari sentsazionalistetan. Eta, noski, zinema ez zen at geratu. Jose Antonio de la Loma zinegilea izan zen kinkien fenomenoaren pantaila handira eramane zuten lehenengoa. Bada, 70eko hamarkadan, Bartzelonako La Mina auzoan aski ezaguna zen gazte delinkuenteen banda zuzentzen zuten *El Vaquilla* bizi zen, agian espainiar lunpenak eman duen kriminalik ezagunena. Bera eta bere bandaren ibileretan oinarrituta filmatu zuten *Perros Callejeros* de la Lomak, helburu dokumental eta salatzaile argi batekin. Filma *El Vaquilla*-ren kideek antzeztu zuten, 12-13 urte bitarteko umeak. Protagonista nagusia

kartzelan zegoenez, Ángel Fernandez Franco *Torete*-k antzeztu zuen bere papera. Eszenak La Mina auzoan bertan grabatu ziren, gazteon bizilekua, baita Bartzelonako kaleetan ere, non gazteek beraien lapurretak burutzen zituzten. Urgentziatzko zinema da, bitarteko





gutxirekin egindakoa, kalean momentuan gertatzen ari zena islatu nahi zuena.

Hala ere, zinema kinkiaren etiketa zeramaten filmak baino lehenago, gazte delinkuentzia eta marjinaltasuna jorratu zuten hainbat film sortu ziren 50eko hamarkadan, AEBetan, *teenxploitation* filmen tankerakoak. Zentsura gaintuz, S etiketarekin, hainbat transgresio sexual eta krimen eraman zituzten pantailara, askatasun egarri zen gazteria hedonista baten gozamenerako. Baina film horiek ez zuten inolaz ere *Perros Callejeros*-en arrakasta lortu: 167.445.759 peseta. Film horrek ezarri zituen laster jaioko zen azpigeneroaren oinarriak. Horrekin batera, hasiera eman zion Kinki pelikulak sortzeko lasterketa zoroari ere. Hala, *Perros Callejeros* trilogia bilakatu zen; Mexikon moldaketa bat ere filmatu zen, *Perro Callejero* (Gilberto Gazcón, 1980).

Aipatutako izaera dokumentalak beste eragin bat izan zuen: filmak hainbat delitu burutzeko klase magistralak bilakatu ziren. Zinema aretoak gaztez bete ziren, eta areto horietan ikasi zuten nola jarri martxan lapurtutako kotxe bat; polizia-kotxeetatik nola ihes egin (izugarrizko kotxe pertsekuzioen testigu izango gara); nola lapurtu zorro bat *tiroiaren* teknika erabilia; edo nola atrakatu farmazia

bat kanoi moztuen eskopeta batekin, beharrezkoak zituzten anfetaminak lortzeko asmoz.

Zinema aretoetan ondo eta asko ikasi zuenetako bat Jose Joaquin Sanchez Frutos *El Jaro* izan zen. Madril hiriburuko iparraldea mende zuen banda bat zuzendu zuen, oso gazte zela. Gazte hil zen *El Jaro*, 16 urte eskasekin, kotxe bat lapurtzen ari zela, bizilagun batek gorputza berunez bete zionean. Bizirik iraun bitartean, prentsako titular asko bete zituen, baina mito bilakatu zen bere bizitzari buruzko *biopic* bat egin zutenean, *El Jaro* (Eloy de la Iglesia, 1980). Film horretan Jose Luis Manzanok eman zion bizitza, inolako esperientziarik gabeko beste aktore bat. Zinema kinkiaren ikur bilakatuko zen, eta droga kontsumoaren ondorioz, kartzelatik pasatu zen, 30 urterekin hilik agertu zen arte, Eloy de la Igleziaren etxean, gairidosi batek jota. Film askotan *El Jaro*-rekin batera agertu zen beste quinqu star bat Jose Luis Fernandez Eguia *El Pirri* izan zen. Horrek ere heriotza tragiko izan zuen, zinematik emandako ospari esker: Gaizki ebakitako heroina dosi batek bizitza kendu zion 23 urte zituela.

## Kinkiak, boladan

Kinkien itxura moda bilakatu zen Espainiar Estatuan, aurreko hamarkadan, gazte brasildarrek fabeletako gazte delinkuenteen irudia imitatu zuten bezala. Jaka bakeroak; kanpai-prakak; kinkien slang-a; lapurtzen zituzten SEAT 124 eta 1430-ak; ordu hilak igarotzeko bilgune ziren bideojoko aretoak (Eloy dela Igleziaren Colegas filmean ikus daitezke); Los Chichos-ek El Vaquilla-ri edo Bordon 4-k Torete-ri eskainitako ereserkiak... Gurasoen munduan, zein trantsizioaren ondorio zen gizartean, beraien lekua aurkitu ez zuten gazteen ikono bihurtu ziren kinkiak, pop ikur imitagarriak.

Hortaz, gazte horiek luppen marjinalaren kide izatetik mito izatera igaro ziren, eta horretan eragin handia izan zuen zinema kinkiak proiektatutako irudiak. Esan bezala, filmok beraien egoera salatu zuten, ikuspuntu eskuin-moralista batetik (J.A. de la Lomaren kasuan) eta ezkertiarretik (Eloy de la Igleziaren kasuan), eta burutu zituzten krimenak horren ondorio izan zirela azpimarratu zuten.

Beraz, beraien burua gizartetik kanpo ikusi zuten gazteek kinkiekin identifikatu ziren, eta antzeko ibilbideak burutu zituzten. Batzuk oso famatu bilakatu ziren, El Vaquilla kasu. Zinema kinkiak



biopic bat ere eskaini zion, Yo, El Vaquilla (Jose Antonio de la Loma, 1985), eta horrek bere itzala handitu zuen. Bartzelonako auzo pobreetan, bereziki charnego-en auzoetan, mito bat izaten jarraitzen du. Errealitatea, baina, oso bestelakoa zen. Kinkiak oso gazte hil ziren, polizia edo bizilagunen balen azpian, El Jaro bezala, edo heroinaren adikzioaren ondorioz, ihesak edo gairidosiak jota. La Mina auzoan, adibidez, ez zuten begi onez ikusten El Vaquilla, kartzelatik egindako ihesaldien ondorioz, auzoa poliziez betetzen baitzen, eta hori kaltegarria zen bertako negozio ilun batzuentzat. Kartzelan

zegoela, kideen aurkako traizio eta salaketak ohikoak ziren.

### Zaldiaren agerpena

Demokrazia SEAT 600 batean heldu zela diote batzuek, baina gazte askorentzat zaldi gainean etorri zela esatea aproposagoa da. Heroinaren agerpenak eta bere kontsumoaren masifikazioak, izugarritzko sarraskia sortu zuen maila sozial guztietako gazteengan, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera. Kinkiengan ere eragina nabaria izan zuen. Orain, premia bat gehiago zuten, beraien gabezia guztiei gehitu beharrekoa. Hala, heroinak lapurretak areagotu zituen: eskuko zorroen tiroiak baztertu,

eta bankuak eta farmaziak lapurtzeari ekin zioten. Drogak giroa nahasi zuen, eta banda asko desegin ziren; hortaz, kinkiak binaka edo bakarka hasi ziren lan egiten. Azkenik, ondoriorik latzenak ihesa eta heriotza izan ziren. Zinema ez zen irazgaitza izan errealtate berri horren aurrean. Ordura arte, kinkien pelikuletan drogen aipamen apurrik bildu ziren, gehienetan haxixaren ingurukoak; Perros Callejeros-en, esaterako, eszena bakarrean erretzen dute porro bat. Salbuespena, berriz, Chocolate (Gil Carretero, 1980) da, zeina haxixaren inguruko monografikoa den. Hala, heroina Espainiar Estatuko kaleez jabetzean, kinki zinemak errealtate hori islatu zuen berehala, berriz ere

urgentziazko zinema zela agerian utziz. Adibiderik garbiena El Pico (Eloy de la Iglesia, 1983) da. Euskal zuzendari horrek gazteen zainak pozoitzen ziharduen droga hartuko du ardatz, eta, Euskal Herrian kokatuko du kinki film bat estreinakoz, bertako elementuekin istorio interesgarri bat osatuz: Guardia Zibil baten seme batek (Jose Luis Manzano, berriz ere) eta parlamentario abertzale baten semeak adiskidetasunaz gain, heroinarekiko adikzioa ere partekatzen dute. Hainbat gai polemiko jarriko zituen egile zarauztarrak mahai gainean: homosexualitatea, adikzioak, politikakeriak, borroka armatua, Guardia Zibilaren inplikazioa tortura, droga-trafiko eta gerra zikinean... Eskorbuto taldeko Juanmaren agerpena eta guzti. El

Pico-k bigarren zati bat izan zuen, zuzendari eta aktore nagusi berdinekin, baina istorioa Bilboko kaleetan garatu beharrean, Carabanchel-eko kartzelan kokatuko zen.

Baina exploitation genero guztiak bezala, honek ere bere gainbehera bizi izan zuen. Hainbat lan kaleratu ziren denbora tarte laburrean –La patria de El Rata (Francisco Lara Polop, 1980), La estanquera de Vallecas (Eloy de la Iglesia, 1987), Perras Callejeras (Jose Antonio de la Loma, 1985), Barcelona Sur (Jordi Cadena, 1981) eta Todos me llaman Gato (Raul Peña, 1980), besteak beste–, eta merkatua saturatu egin zen, zinemagileen ideiak bukatu ziren arte. Zinemagile handi baten eta prestigiozko aktore baten partaidetzak, Carlos Saura zinegilea Deprisa, deprisa (1981) filmean eta Fernando Fernán-Gómez aktorea Maravillas (Manuel Gutierrez Aragón, 1980) pelikulan, ez zion prestigiorik eman generoari, ezta desagerepenetik salbatu ere.

Askoren aburuz, zinema kinkia delinkuente nazkagarri batzuen bizipenak goratzen dituen azpigenero kutre bat baino ez da, ahanzturan geratu beharreko Espainiar gizarte

zein zinemagintzaren historiako pasarte bat. Zer nahi duzue esatea, kutrea da, bai, baina horretan datza bere xarma.

Urgentziazko zinema da, berehalako dokumentalaren funtzioa betetzen duena. Eta nik izugarri ondo pasatu dut artikulu hau idazteko hainbat pelikula berrikusten. Bestetik, zine kinkiak eredu ez ziren gazte batzuk idoloen pare jartzen ditu, baina ezkutatu nahi duten gure historiaren zati bat azalarazten du. Desarrollismoaren eta Trantsizioaren B aldea da, lokatzez, odolez eta hilotzez beterikoa. Inoiz eta inola ahaztu behar ez duguna.



Juanra Madariaga

# Brane Mozetič eta angustiaren rafagak



Brane Mozetic 1958an jaio zen. Poeta da, eta Rimbaud, Genet, Foucault eta beste batzuen lanen itzultzailea ere bai. Aleph eta Lambda argitaletxeetako editorea da. Horretaz gainera, Literatura eta Bizitza jaialdi eta Ljubljana Gay and Lesbian Film Festivalaren koordinatzailea ere bada.

*Banalidades* izeneko poemarioak argia ikusi du Visor argitaletxerekin. Desioaren eta desolazioaren gaineko ikerketa poetiko potentea, batzuetan bere burua erreferentziatzen hartuta, bestetzetan besteena.

Horrelakoa da bizitza, brutala. Zauriak ezin dira kauterizatu. Asumitu behar duzu.

## ZERBAITEK HUTS EGITEN DU GUGAN.

Berrogeita bost urterekin eta ez daukat inor maitasunez pentsatzeko. Oroimenek min emate dute. Ez nuen inoiz pentsatu edertasunak hainbesteko min sor lezakeenik. Aurpegiak begiratzen ditut eta airea falta zait. Agian aieru dramatiko batez bizitza kentzeko edo hiesak ni akabatzeko ordua da. Sena dela, Hudson dela, honek ez du gehiagorako ematen. Klub susmagarrietara joaten naiz, jendea ukitu gabe mintzatzen da, edo isilik dago eta larrua jotzen du gela ilunetako iluntasunean. Hau baino ez zidan esan: "Atera ondoren, ez dugu elkar ezagutzen". Hobe da horrela? Adi begiratzen dut ibiltzean eror ez nadin, kaleak nahastu ditut, lantzean behin beltz taldeak agertzen dira mehatxuzko itxuraz, erakartzen nauen lazturarekin, Nairobin dela, Sao Paulon edo Bronx-en. Nire mulatoa madarikatzen dut hain ezinezkoa izan delako, eta nire burua ere bai zerbait deseatzeko jarraitzeagatik, zerbaitek huts egiten baitu nigan.

**ANA MAITEA, LJUBLJANA**

amesgaizto ikaragarria da. Otu egiten zaizun lehen gauza zainak moztea edota lepo-bueltan soka bat lotzea edo Neboticnik erakinetik botatzea da. Pairatzeko, beti egon beharko zinateke mozkortuta edota kolokatuta. Lagunak ez dira lagunak, ezagunak ez dira ezagunak, maitaleak ez dira maitaleak, ama ez da ama, aita ez da aita, emaztea ez da emaztea, lurzorua ez da lurzorua, hustasun infinitu batean flotatzen du denak, mamuak, espektroak, engendroak, ura ez da ura ez airea airea ez eta sua sua. Ana maitea, Ljubljana, zure hiria, munduaren amaiera da, esperantzarik gabe bitiztea da, begetal baten moduan, tormentu infernala, urdail astuna, izaki astakirten eta elbarri bilakatu nahi zaituzten energia negatiboen metaketa. Ljubljana, suge soinuduna, leuntasunez besarkatzen zaituena, ternuraz, motelki, eta airea falta zaizu eta ezin duzu libratu, beti doa zurekin, arrastaka jazartzen zaitu, hain koloretsu, ez-kaltegarri. Tira, desagertu, hondoratu zingiran, itzuli lokatzera betirako, salba gaitzazu!

**EZ DAKIT NOLA OTU ZITZ AidAN ZUTAZ PENTSATZEA.**

Musua ematean lehena izan nintzen zeu konturatzeko mozkorregi bazeunden ere. Eta nik min jasanezinak eta zoriontasuna sentitzen nituen. Ukitzea baino ez nuen desiratzen, zure begiradak, bizkarra ferekatzen nizun. Ez dakit zurekin sexuan inoiz pentsatu ote nuen. Egia esan, ez nuen guztiz imajinatzen. Dena bizikletaz eraman nahi izan ninduzunean hasi zen. Zure neska-laguna izan nahiko nuke, pentsatu nuen, beste modu batean ez nekien pentsatzen eta. Zainduko nindukezu, mimatuko nindukezu, gauean biok biotara aurkituko ginateteke eta eskutik helduko genioke elkarri, lotsagorriturik. Baina denak buelta eman zuen. Sentimendu horiek ukatu zenituen, eta orain oso morroi lodi eta aspergarria zara. Inoiz nigan pentsatzen baduzu, higuinaz izango da. Eta eskerrak, bestela, orain ez nintzateke garbitegian arropa garbitu arte itxaroten egongo, kanpoan euria egin, eta barruan txino batzuek lan egin, makinek zarata atera, eta nik, urteak arinegi pasatzen direla konturatu gabe Killian-en poemak irakurtzen ditudan bitartean. Lantzean behin gure sasoiara itzultzen saiatzen naiz, hori posible balitz bezala, eta bizikletaz eraman, zaindu eta eskutik heldu nahi izango nauen gazte bat bilatzen dut.



kultur pilulak eskuratzeko beste bi botika  
 thebalde.net      entzun.com

**cran**  
 arte gráfico  
 KOMUNIKAZIO GRAFIKOA


roll - up banner desde  
**65 €**

COMUNICACIÓN  
**VISUAL**



- ✓ Dimensiones: 85 X 200
- ✓ Soporte: Polipropileno
- ✓ Cobertura: 50% de la Superficie
- ✓ Estructura de aluminio
- ✓ Montaje
- ✓ Bolsa de Transporte





Antton Iturbe

# Jim Jarmusch. Musika irudikatua

"How did you get in here?  
I Used My imagination"  
(*The Limits Of Control*-eko elkarrizketa)

***Night On Earth*-eko taxietan ezagutu nituen Jim Jarmusch-en pertsonaia arrunt eta adoretuen istorio xarmagarriak. Baina irudi haien lilura ez litzateke berdina izango Tom Waits-en musikarik gabe. Biziki gogoratzen dut filma lehen aldiz ikustean, Waits-en doinuak ezin egokiagoak iruditu izana, eta bereziki bere musika inoiz ez bezala nireganatzeko gai sentitu nintzela.**

**Musikazale lehenik, musikaria gero, eta zuzendaria azkenik, musikak inspiratzen ditu Jarmusch-en filmak eta musikak gidatzen du istorioen taupada. Baina, musikarekiko duen jarrera, eta batik bat musikarienganako harremana da benetan bere estiloa bakarra eta imitazina egiten duena.**

Une bakoitzerako abesti aproposak aukeratzeko belarri zorrotza duten zuzendariak badaude, baita musika eta estetika ederki uztartzen dituztenak ere. Urrunago doa Jarmusch ordea, eta musika hori sortu zuten musikarien buruetan sartuko balitz bezala, bertan ezkutatzen diren irudiak eta gogoetak aurkitzeko gai da. Abesti horiek inspiratu dituzten pertsonaiak eta paisaiak erakusten dizkigu, eta sarritan, musikari berak jartzen ditu haien erdian. Era horretan, pertsona, musikaria eta bere irudimena nahasten dituzten pertsonaia ahaztezinak eskaintzen ditu, bata eta bestearen arteko mugak misterio handiz ezabatuz, gainera.

Hori guztia hobeto azaltzeko bere film guztiak (aurten estreinatutako *Only Lovers Left Alive* izan ezik, ez bainaiz horretarako garaiz iritsi) musikaren ikuspegitik begiratzen gonbidatzen zaituztet artikulu honen bidez.

1980n plazaratu zen *Permanent Vacation* bere lehen filma. NYko Villageko kale zikinetan barrena, Aloysius (Charlie) Parker-en istorioa kontatzen digun zinta xarmagarria 15.000 dolar ingururekin filmatu zuen Jarmusch-ek.

Hiri erraldoiaren aldibereko ikara eta lilurapean bizi den lurrazpiko dandy txiki honen ezinegona eta noraezak, Jim-en no wave gitarra mingarriak eta John Lurie-re saxo dotoreak sortzen duten musika biluzian aurkituko du isla ezin hobea. Era horretan, Charlie, garaiko Jim Jarmusch musikari/filmagile ezbaitsuaren alter ego baino ez da, eta John Lurie-ren pertsonaia, joka eta zapata zuri distiratsuz gauaren erdian agertzen den saxo jole miragarria, nire ametsetako John Lurie bihurtu da betirako.

1984ko *Strangers in Paradise* ikusi ondoren, oso zaila da Screamin' Jay Hawkins-en *I Put a Spell On You* entzutea film horren irudiak gogoratu gabe. Pelikula osoa abesti mehatxugarri eta hipnotiko horren bideoklip handi eta zoragarri bat da azken batean. Evaren sorginkeria NYko kale gordinak zeharkatzen eta sukaldean dantzan. Amerikar errepedeen sorginkeria Floridarako bidean. Amerikar telebistaren sorginkeria. Atzean utzitako Hungariako sorteriaren sorginkeria eta *Amerikar way of life* distiratsu bezain hutsarena... Baina nor da sorgina eta nor sorgindua? Abestia bezain misterioitsu eta ederra da filma.

### Graceland eta zingirak

Zuri-beltzean ere, eta edertasun pittin bat galdu gabe dator bere hurrengo filma: *Down By Law* (1986). Tom Waits, John Lurie eta Roberto Benigni-ren interpretazio zoragarrietan oinarritua badago ere, New Orleans-eko hiria eta Luisiana-ko zingirak dira benetako protagonistak, bai eta John Luriek sinatzen duen musikaren habitat naturala ere. Bourbon Street eta kalezuloetako jazz-a eta Bayou-etako uluka. Poliziaren ustelkeria eta krokodiloen mehatxua. Kreol kulturaren nahasketa eta amerikar *meltin' pot*-aren adierazlea. Baina filmean esaten den bezala *meltin' pot* nahasketa horrek zikintasun asko dauka: "It is called meltin' pot because when you boil it down, scum comes to the top...". Parish-eko gartzela jendez gainezka dago. Amerikar galtzaileak. "It's a sad and beautiful world" dira Roberto Benigni-ren lehen hitzak. Hala da bihotz handiko galtzaile erromantikoen bizitza, tristea eta ederra aldi berean. New Orleans-eko DJ onena eta burugorrenarena bezala, Wyld irratiko Lee Baby Simms-i ahots sakon magikoa ematen dion Zack. Tom Waits aktorea edo Tom Waits bera?. Azken batean, ba al dago Zack baino

Tom Waits-ago den Tom Waits-ik? Robby Müller argazkilararen kolore bizietan filmatuta bada ere, gainbehera nagusitzen da *Mistery Train*-eko irudietan. 1989an gaude, eta Sun edo Stax grabaketa estudioen urrezko garaiak oso urruti geratu dira. Memphis, mamu hiri bat bihurtu da. Rock'n'Roll, Rhythm'n'Blues eta Soul hit kitzikagarriak bata bestearen atzetik sortu eta inspiratu zituzten egoitzak zikin, baztertuta, itxita, edo kasurik hoberenean, museo irragarriak bihurtu dira. Eta mamu guztietatik, noski, Elvis Presley erregearena da handiena, eta filmeko hiru istorioak bultzatzen dituena. Yokohama-ko rocker bikote xaloa Graceland-era erakarriko du erregeak, eta istorio guztien bidegurutzetako bilakatuko den hotel lohiko paretetan zintzilikatutako irudietatik inguruko guztiak begiratu eta zaintzen dituela dirudi. Bere *Blue Moon* klasiko zoragarria hiru aldiz entzungo da, istorio bakoitzean bake une bat emanez, pertsonaiei "lasai, orain etxean zaude" esango balie bezala. Eta bukaeran pertsonaia denek Memphis-etik alde egingo badute ere, Otis Redding eta Roy Orbison-en izpirituek azterna utzi dute beraiengan eta bertan pasatutako

gaua betirako gogoratuko dute, bereziki Johnny-rengan, Elvis gorrotatu arren, erregearen antza handia duen ingeles mozkor liskarzalea... Ez al da hori Joe Strummer beraren jarrera punk antiimperialista eta amerikar



estetika eta musikarako grinaren arteko gatazkaren isla? Non hasten da Johnny? Non bukatu Joe?

### Galtzaileak dira protagonistak

*Back in the good old world*. Tom Waits-en doinu goxoa lagun dugula, 1991ko *Night On Earth* filmak gaua lurrean pasatzera gonbidatuko gaitu. Los Angeles, New York, Paris, Roma edo Helsinki-ko taxi bat hartu eta bertako bazter eta jendeen gaineko begirada berri bat proposatzen du. Hiriek moldatzen dituzte pertsonak eta pertsonak moldatzen dituzte hiriak, bat egiten dute, eta bata bestearen adierazle bihurtu ere. Waits-en musikaren kutsu bohemio eta mestizoa ezin hobeto egokitzen da hiri bakoitzeko izaerari. Crooner-a, jazz piano-jolea, trobadorea edo clown-a... mozzorro guztiak gordetzen ditu Tom-ek bere maleta urratuan. *It's a sad and beautiful world*. Galtzaileak dira protagonistak berriz ere. Edo irabazleak dira? Galtzea edo irabaztea al da helburu bakarra? Bizi munduan, zure azkenengo gaua balitz bezala...

Ziklo bat itxiko balu bezala, Jarmusch-ek tarte bat hartu zuen bere hurrengo filma

prestatu eta lankide eta musikari berriak bilatu ahal izateko. Ondorioz, 1995 urtera arte ez zuen film berririk aurkeztu. Baina emaitzak pena merezi du. Horixe baietz, *Dead Man* irudi eta soinu bandaren artean inoiz ikusi dudana sinbiosi liluragarriena baita. Bertan, AEBetako ikono kultural eta musikalak alde batera utzi eta Iparramerika bilakatuko da protagonista; Iparramerikako natura eta bertako jatorrizko biztanleak hain zuzen ere, indiarak. Eta bapozeko tren zaratatsu eta kutsatzailleetan etorri ziren zuriak ere. Diruaren eta pistolen metala gurtzen zuten gizon zuri zikoinak. Bere jaioterriko kultura arbuatu (William Blake / Johnny Depp pertsonaiaren misterioa) eta bertakoa deuseztatzeari ekin zioten gizon zuri kikilduek. Stupid White Men: Iggy *The Idiot* Pop emakumez mozzorrotuta, bere saltsan. Egun, indiar haien izpirituak baino ez zaizkigu geratzen Johnny Depp-en begietan, eta batez ere, Neil Young-en gitarraren akople, distortsio eta oihuetan. Filmeko irudiek inspiratutako inprobisazioez sortu zuen Neil-ek soinu banda guztia, eta komunikazio trantze xamanistiko batean murgilduko balitz bezala, berak eman zien benetako erresonantzia, eta

oihartzuna irudi horiei. Musika zoragarri horren bidez emango da ezagutzera irudien barneko esanahia eta benetako indarra. Ez daukat gehiago esaterik, filma honen eragina azaltzeko artikulu osoa erabilita ere motz geratuko nintzateke, norberak sentitu eta esperimentatu beharreko gauza baita.

Ororen gainetik Jarmusch musikazalea da, gu bezalako fan bat, azken batean. Eta neu bezalaxe, Neil Young-en fan amorratua da gainera, bere *Year of the Horse* filmak ederki erakusten duen moduan, fan ikuspegitik egindako dokumentala baita. "Bizpahiru galdera petral eginez 30 urtetako eromena azaltzeko gai izango dela pentsatzen duen New York-eko artista ustel eta pijoa", Frank *Poncho* Sampedro-ren hitzetan. Eta hala da bai, filmak Neil Young eta Crazy Horse-ren izaerari buruz ez du berez ezer argitzen, baina aldi berean, dena argitzen du. Crazy Horse bizimodua da, indarra, bizirik irauteko arazoia eta sortzen jarraitzeko energia iturri amaigabea. Eta guzti hori indar handiz komunikatzen dute Jarmusch-

en irudiek, apal eta zorrotzak aldi berean. Bereziki aipagarria da azken *Like a hurricane* kantu mitikoan garaiko eta 20 urte lehenagoko irudien arteko trantsizioa: sinplea, erraza, pixka bat *naif* ere, baina sakonki hunkigarria... zaldi zoroaren musika bezalaxe.

### Txakur mamua

Ghost Dog-ek kotxe garestienak ireki eta lapurtzen ditu, etxean egindako tramankulu elektroniko batez. Isil eta airosa. CD bat jarri eta gauaren barnean gidatzen hasten da Jersey-ko auzoetan zehar. Hip Hop musika da, 1999 urteko amerikar kaleetako soinu banda horixe baita. Atzean geratu dira rock'n'roll eta rhyhm'n'blues estiloak; RZAren beat abstraktu, ilun, sofistikatu, sakon, dotore eta misterioitsuak dira garai nahasien adierazle zorrotzenak, Ghost Dog protagonistaren irudi eta jarreran irudikatuak. Ghost Dog (Forrest Whitaker) hiltzaile bakartia da, jakintsua eta fina, baliabide amaigabeak ditu, eta ez du inoiz hutsik egiten. Samuraien kodea bihotzez ezagutu eta leialki jarraitzen du. Bere buruaren jabe da, eta ez da ezeren

beldur, RZA eta Wu-Tang Clan hip-hop musika bezalaxe. Ghost Dog eta RZA bera filmaren amaiera aldera, begirune eta mirespenez betetako begiradak gurutzatzen dituzten une ahaztezinan laburbiltzen da dena. Afroamerikarrak behingoz bere arte, kultura, bizimodu eta patuaren jabe bakarrak bilakatu dira. Zoritxarrez *stupid white men*-ak bere horretan dira, bere zatia eskatuz eta inguruak nahastuz, *The Sopranos*-en itxura baino ez duten mafioso trakets, inozo eta barregarriak badira ere. Egia esan, umorezko kontrapuntu ederra ematen dute, eta gauzak borobiltzeko, gainera, haien buruzagietako bat Public Enemy-ko Flavor Flav-en zale sutsum da. Jarmusch-en unibertso bitxi eta samurra. Bere film atsegina. *It's a sad, beautiful and strange world too*.

Musika gutxi baina musikari asko dago *Coffe and Cigarettes* filmean: Tom Waits, Iggy Pop, White Stripes, GZA & RZA... 2003an plazaratu arren, garai ezberdinetan grabatutako film laburren bilduma da berez. Zuri-beltzean denak, kafe eta zigarroak elkarbanatzen dituzten bi solaskidetan oinarrituta beti, xake taula baten itxura duten mahaien gainean gehienetan. Ego / alter ego, komunikazioa / inkomunikazioa, ona / gaiztoa, xumea / harroa... moduko dualidadeekin jokatzeko modu barregarri eta pittin bat absurdoz. Joko horren harira, Jarmusch-ek *Louie Louie* kantuaren jatorrizko bertsioa jartzen du hasieran, eta Iggy Pop-en bertsioa amaierako kredituetan. *Long live Joe Strummer* hunkigarri batek ixten du dena, faltan botatzen baitzaio zalantzarik gabe. Edozein erara, bere hurrengo proiektuaren prestaketa-lanetan denbora irabazteko aitzakia dibertigarria baino askoz gehiago ez dela onartu beharra dago.

### Lore hautsiak

Proiektu berri horrek *Broken Flowers* du izena, eta aktoreen artean ez dago musikaririk. Identifikazio horren faltan musikaren erabilera "konbentzionalagoa" da. Behingoz *stupid white men (and women)* eta bere mundu artifiziala dira protagonistak, Bill Murray-ren espresio gabezi infinituan pertsonalizatuta. Baina ba al dago ezereza horrentzako musikaririk? Jarmusch-ek erantzuna kontraesanean bilatzen du, eta DJ lan fina eginez, Mulatu Astatke-ren doinu exotiko eta dantzagarrietan aurkitu ere. Baina egia esan, istorioaren inguruko jakin-mina eta erakargarritasuna handitzen badute ere, bertan geratzen dira; ez dute bere aurreko filmen erresonantzia berbera. *Ghost Dog* edo *Dead Man*-en musika eta irudiak bata bestearen isla dira, ez dago bata bestearen laguntzarik gabe ulertzerik. Broken Flowers-en osagarriak baino ez dira. Alde handia dago.

Zorionez, *Broken Flowers*-i falta zitzaion erresonantzia bere hurrengo filmerako gorde zuen Jarmusch-ek, 2009ko *The Limits Of Control* erreberberazio zoragarriko leherketa baita. Boris eta Earth-en gitarra riff erraldoiak etengabe errepikatzen dira, eta haien oihartzunak film guztia estaltzen du, Manuel de Sevillak jotako flamenko kexuak bere gitarraren zurean itsatsita geratu diren bezala. Pelikula kriptikoa, geldoa eta aspergarria dela diote batzuk; Dylan Carlson-en musika bezalaxe pazientzia behar duen filma da. Nahi beste aldiz berrikustea ahalbidetzen du bere istorioak (edo istorio ezak), bere benetako izaera ximple, eder eta unibertsala azaltzen duen arte. Orduan gauzatzen da Jarmusch puruena eta maitagarriena gure aurrean, bai eta bere ibilbide guztiari zentzua ematen dion maisulana ere.





# Pop-litika

Danele Sarriugarte

## Zer eta zelatan

Aurkeztu zen garaian susmo ona eman zidan; iazko abenduan zerogarren alea mamitzean, ostera, hasierako inpresio atsegin hori konfirmatu estetika eta testu-aukeraketa txukunak; udaberriko liburuxkan, azkenik, parte hartu nuen apur bat zeharka eta bertarako beren-beregi prestatua ez zen William Burroughsen itzulpen batekin. Pauso naturala zen behingoz pop pilula bat idaztea buru-belarri. Eta Kathleen Hannah aukeratu nuen. Eta poparen eta konpromiso politikoaren arteko harremana.

Batetik, fanzine nahiko berri eta egin-ezank-hik-heuk filosofiarekin lotutako batean argitaratzeko ezin aproposagoa zirudien fanzinegintzan serio demonio jardun zuen norbaiti prestatu omenalditxoak. Bestetik, azkenaldi luzexkan buruan zebilkidan poparen eta politikaren arteko ustezko bateraezintasunak, orokorrago arinaren eta astunaren arteko ustezko lehiak. Ekimen honen bultzatzailearen beraren hitzak dakarzkiz, lehenik, horiek ere bai baitzeuden buruko matazan (biba hemeroteka!): “euskaraz egindako fanzine bat, transzendenziarako asmorik gabekoa” (Berría, 2013-12-06). Bigarrenik, Aritz Galarragak ere transzendenzia hitza erabili zuen apirilean elearazirako egin nion elkarrizketan (elearazi.org, 2014-04-21), gai bertsuari buruz aritzean, kasu horretan arte-adierazpidea literatura izanik. Pasazaitek aurtengo udaberrian plazaratutako *Hobe kontatzen ez badidazu* ipuin katalanen antologiaren harira bota nizkion galderak Galarragari, eta ipuin katalanek zer ote daukaten berezia jakin nahi izan nuenean, arintasunaz, freskotasunaz eta transzendenzia ezaz mintzatu zitzaidan antologoa, euskal kontakizunek luzez falta izan omen dutena. Ez da, ez, umore eta eduki axolagabeetarako lurralde emankorrena (eta historia hurbilak aise

esplikatzeko zuten zenbait zergati). Azkenean, deseroso sentiaratzen ninduen bifurkazio horri bestela erantzuten zion Kathleen Hannah agertu zitzaidan berriro ere eta definitiboki zeruertzean, gure kategoria zurrunik betiketzeko tema hau ezeztatuz.

## Kathleen eta biok

Izan ere, Kathleenek eta biok badugu (edo gehienbat nik Kathleenekiko badut) istorio intermitente eta polit bat, wikipediaren eta neure memoriaren bitartez berreraikiko dudana. 2000ko hasieretan, Elgoibar autopista-herriko nerabe bat nintzen garaian, gurasoen etxean dagoeneko ADSLa eduki arren messengerrera pare bat orduz bakarrik konektatzen nintzen eta sare sozialei gaur egun bezainbeste denbora eskaintzen ez nienenean, telebista ikusten nuen erruz, telebista arrunta, alegia, extra ordaindu gabe sintoniza zitezkeen kateak: La primera de tv española, la dos, Telecinco, Antena 3, ETB1 eta ETB2, eta laster iritsiko zen Cuatro. Gloriazko zenbait unetan Canal Pluseko programak irekian ematen zituzten, tartean, eta behingoz banator muinera, *La hora wiki*, oro har kulturari buruzko ordubeteko saio bat. Raquel Sánchez Silvak eta Nico Abadek (“nola aldatzen diren gauzak, kamarada” ozen bat bi hauen ibilbideentzat) aurkeztzen zuten, platoan laguntzen zien Calambre izeneko DJ batekin, txapela zeramana beti eta aurpegia desenfokatua, inork ezagutu ez zezan. Le Tigre delako batzuen *Deceptacon* mantsotuago bat zen programaren sintonia. Programaren bitartez iritsi nintzen, halaber, Cycle taldea ikustera Bergarako Jam-ean. Baina, Hannahrekin genbiltzan. Piratak jaitsi nuen *Deceptacon* eta urregorria bezala gorde, saioa handik gutxira bukatu baitzen.

Urteak pasa ahala nostalgikoki entzuten nuen, gero eta tarteka-martekago, Yayoi Kusama artista japoniarri

buruz informazio bila hasi arte nintzen googlen. Ez dakit zenbatgarren sarrera wikipediari zegokion, baina ez zen Kusama berari buruzkoa ezpada Le Tigreren *Hot Topic* kantua ardatz zuena. Hainbat emakumeren izenak aipatzen zituzten tigretarrek kantuan, omenaldi bat euren genealogia feminista eta artistikoari. Horietako bat dagoeneko aipatutako Kusama, baina bertan zeuden baita Gayatri Spivak, Angela Davis eta Gertrude Stein ere. Orduan, hiper-esteken mirariari esker zuzenean Kathleen Hannah behingoz sakon ezagutzen hastera abiatu nintzen... eta joño. Dokumentalaren bila. Korrika

### The Punk Singer

Ipuin icebergei buruz esaten dutenaren antzera, alegia, azpian dagoena soilik iradokitzen dutela gailur muttur batekin irakurleari den-dena azaldu gabe, horrela sentitzen nintzen ni, dokumentala ikusi arte Hannahren ibilbidearen ertz txiki bat baino ezagutzen ez nuenak. (Filma Sini Andersonek zuzendu zuen, eta 2013an plazaratu).

Bikini Kill punk taldearekin hasi zen gutzia. Etxe-giro nahiko latz batetik zetorren Hannah bat-bateko poesia edo *spoken word* saioak egiten hasia zen, mugimendu bat martxan jarri nahi zuelako. Norbaitek aholkatu zion horretarako hobe zuela musika-banda bat abiatzea, nahi zuen moduko jarraipena lortzea gaitza baitzen poesiarekin. Horrela sortu zen hirukotea, ez zena huts-hutsean talde musikal. Emakumeentzako

bilera irekiak deitu zituzten Olympia hiriko inguruetan (Washington estatuan, AEBetako ipar-mendebaldean), guztiak elkartuta fanzineak argitaratzen hasi eta emakumeen aldeko borroka antolatu eta hauspotzeko.

Riot grrrrl-a munduratzeko zorian, ez da gutxi.

Bikini Killekoek inguruak aztoratu zituzten azkar. Intzestua, sexu-aberusia eta emakumeen kontrako indarkeriari buruzko letrekin erreakzioa bortitz etorri zen, Hannah-k gutunetan eta prentsan jasotako gorrotoa aipatzen du dokumentalean. Jakina, jaso zuen erantzun positiborik ere. Eraldatzailea, ahalduntzailea eta haize fresko ufada behar-beharrezkoa izan ziren riot grrrrl-ak neska askorentzat. Dokumentalak irudi ikusgarriak eskaintzen ditu, mugimendua emakume askok osatua izan arren, zalantzarik gabe klabea izan zen Hannah-ren ausardia eta karisma. Kamiseta baterako gordeko nuke, kasu, argazki bat, Hannah abesti errebolari denak arnasa betean kantatzen estetika militardun eta besoak gurutzatutako gizon gotorren aurrean. Bizitzen titudan musika-emanaldi gehienetan aplikatuko, ostera, bere politika: kontzertuak ez hastea mutilak atzealdera joan eta neskak aurrealdera etorri arte, bestelako pogoak posible direla aldarrikatuz.

Presioa gehiegizkoa egin zen, azkenean. Kanpotik iritsitako erasoez nekatuta Hannah-k jaioterria utzi eta Johanna

Fateman lagun minarekin batera New Yorkerakoa hartu zuen. Hori baino lehen Julie Ruin izeneko disko bat kaleratu zuen, oso etxeko baliabideekin grabatua, neska batek bere gelan fanzine bat muntatuko lukeen eran.

Bikini Kill-eko garaietaz jardutean, polemika piztu zuen beste gai bat ere du hizpide Hannah-k filmeko testigantzetan: bere ogibidea, bizitzeko dirua nondik ateratzen zuen. Izan ere, stripper modura lan egiten zuen musikariak, dokumentalean esplikatzen duenez, oso ondo uztartzen zelako bere jarduera artistikoarekin, askatasun handia ematen ziolako, hain ordu gutxi lan egiteagatik ez ziolako inork inola hainbeste diru ordainduko. Baina nola egin zezakeen lan *behar den moduko* feminista batek klub batean ia biluzik dantzan? Feminismoaren barne-hausturak islatzen dira bizitza zehatzetan, kasu honetan ere. Hannah-ren jarrerak bat egiten du AEBetan martxan zegoen feminismo pro-sex-arekin, alegia, sexuari, pornografiari eta sexu-lanari buruzko ideia aurrerakoiak defendatzen zituzten militanteekin. Labor-labor: feminista horiek ez zuten uste, berez, sexua emakumeentzako denigrantea zenik, erabilera zen gakoa. Halaber, norbere gorputza (zentzu sexualean) dirua irabazteko baliatzea zilegi zela uste zuten (beste batzuk eskuak, besoak edo buruak baliatzen ditugun moduan), eta kontra egin zioten sexu-langileak emakume galduak eta biktimak baino ez zirela zioen ikuspegi orokortuari.

Bikini Kill amaitu, hiri-aldaketak gertatu eta urtebetera jaio zen Le Tigre, 1998an. Hasiera batean, Hannah-k taldea nahi zuen bere Julie Ruin disko hori zuzenekoetan sendotzeko, baina gero proiektua hazi egin zen. Riot grrrl mugimenduaren eta feminismoaren ekarpenak uztartu nahi zituzten poparekin eta elektronikarekin, dantzatzeko beste modu batekin. Estetika

ere guztiz aldatu zuten (logikoki). Ildo futuristako jantziak: zuria, kolore biziak eta zilar distirak barra-barra. Ezagun-ezaguna dira, halaber, *Le Kicks* abestiko bideokliperako erabilitako soinekoak, STOP BUSH (gelditu Bush) esaldiarekin josita goitik behera. Dokumentalean elkarrizketatutako zaleetako batek ondo dioenez, punk eszena txikiagotik eta zentzu batean gogorragotik etorrira, Hannah konturatu zen bazegoela borroka horiek zabaltzerik beste modu batean ere, eta borroka horiek behar zutela kolore- eta alaitasun-txerto bat.

Eta horixe da, hain justu ere, erdi-kronika, erdi-hausnarketa, erdi-ipuin gisa abiatu eta azkenean ez-dakit-zertan gelditu den honen gunea. Pernandaren egia bat ere badena, ahazten dugun arren. Era oso intentso, oso min, eta argi eta garbi askoz *in-your-face*-agoan abiatu zuen Hannah-k bere jardun feminista eta ondorioz politikoa. Hori bada posizionatzeko modu bat. Toki beretik jarraitu zuen borroka gero Le Tigrearekin, sinesmen eta helburu (orokor) berberekin; bestelako baliabideekin ordea, bere pentsamenduko beste fase batean. Arintasuna ez dator sekula kargarik gabe, zamatuta gurutzatzen baitugu bizialdi osoa. Eskuartean dituzuen orriok bezala, entretenimendurako balio diezazuketen arren trenean irakurtzeko edo komunean edo ohatzean paratuta, tarteka albokoari edo pantailari hitz egiten diozun bitartean, konpromiso eta pasio zehatzetatik jaio dira hauek ere.

Nola bestela.

### Post-oharrak

2000ko hamarkadaren erdialdean eten zuen bere jarduna Le Tigrek, besteak beste, Hannah-ren osasunak izan du eraginik. Zertxobait beranduago, 2010 inguruan sortu zuen bere proiektu berria, The Julie Ruin, gaur egun kontzertuak ematen eta diskoak grabatzen ari dira.





# Man uharteko neska

Koldo Almandoz

## Man uharteko neska

Prestaketa itzulia: errepideko sirenak Ez dakit zehazki norena den errua, baina haurtzaroen moto zaletasuna kontagiatu zidan osabak, era berean, jakaren kremlera ia zilborreraino irekitzen zuen eta Jacks-en bila zebilen iragarkiko neskak ere izango zuen zerikusirik. Kontua da, motoa pilotatzen duen neska bat baino gauza ederragorik ez dudala irudikatzen. Bateria jotzen duten neskak hurbiltzen zaizkie, baina ez dago larruzko monoaz beren ezkatat ezkutatu eta errepidean bi gurpilen gainean ibiltzen diren sirenak baino gauza beroagorik.

Gasolina zainetan eta motorraren burrunba hanka-tartean duten neska moteroek (motoaren munduak metafora propioak ditu, zer egitea nahi duzue...) nire motoaren giltzaz gain, nire bihotzarena ere badute. Eta motoa esan dut, benetako motoa, hiriak inbaditzen dituzten plastikozko scooterrak ez dira kategoriatan sartzen. Kaskoa jantzi eta prestatu zaitezte. Munduko moto lasterketarik basatiena hastera doa.

## Irteera: Man uharteko lasterketa

Man uhartea. Irlanda eta Ingalaterra artean dagoen paradisu fiskala. Metro koadroko dagoen banku kopurua Andorra, Luxenburgoko eta Monakorekin soilik konpara daiteke. Ia urte osoan, uharte honetan lasaitasuna da nagusi. Zelai berdeetan belarra jaten duten zaldiak, bideak mugatzen dituzten harrizko murrak, postaletan hain eder luzitzen duten arrantzale barkuak, golf zelaietan erretiroa erretzen dabilzan aitona-amonak eta telefono kabina gorriak.

Baina maiatzeko azken astean eta ekaineko lehendabizikoan, Man uharteko TT moto lasterketek abiaduraz, dramaz

eta epikaz jantzen dute irla aspergarria. Normalean apenas zirkulaziorik ez duten errepide estu eta lasaietako ertzetan paseatzen ibiltzen da segadun dama. Eta ez du asko itxaron behar izaten sega dantzan jartzeko. TT Isle of Man lasterketak 107 urte bete ditu aurten. Historia osoan 200dik gora moto pilotu hil dira bertan. Aurten bi. Munduko moto federazio askok (espainola barne) ez du ematen baimen ofizialik lasterketa horretan parte hartzeko. Euskal Herria independente izateko arrazoi hobeagorik ez zait otutzen.

## Lasterketa: Beryl Swain, izarren hautsa

*"Slowly but surely, women, the weaker sex are muscling in on man's domain". Girl Racer British Pathe (1962).*

(<http://www.britishpathe.com/video/girl-racer>).

Ezin da ukatu, neskak, motoan, ia beti "pakete" gisa eraman ditugu (moto



munduaren metaforena kontatu dizuet, ezta?). Donostian, adibidez, nire nerabezaro garaian, “*el que tiene vespa tiene neska*” esaten genuen. Bai, pop pirulera eta pirulero kuttunak, motorren mundua maskulinitate *brutto*-aren erakusle izan da beti. Badakizue, keinu gaiztoko gizon bizardunak, kaskezur partxeak, titiak erakusten dituzten emakumeak eta guzti hori... Beti? Ez da guztiz egia. Salbuespenak badira. Uma Thurmanek Bruce Leeri ostutako mono horia jantzi eta motorra pilotatzen hasi aurretik, Jean d’Arc ezberdinek zamalkatu izan dutelako bi gurpilen gainean. Horietako batekin maitemindu nintzen ni aspaldi, *Motorcycle Sport* aldizkari mitikoan haren argazkia ikusi nuen une berean. Kaskotik ihes egiten zion ile mataza horia, larruzko mono beltza eta bere moto gorrian marraztuta

zeramatzan izarrak jainkosa baten itxura ematen zioten.

Beryl Tolman Walthamstow hirian jaio zen, East Londonen, eta idazkari gisa egin zuen lan, Eddie Swain moto saltzailearekin ezkondu aurretik.

Senarrarekin motoan ibiltzen hasi zen, eta berehala ikusi zuten motoak pilotatzen dohain berezia zuela. Normalean egiten den kontrako bidea egin zuen Berylek. Zilindrada handiko motoekin hasi zen lehiatzen, baina 50 cc-ko motoekin lortu zuen arrakasta. *Sneetterton eta Brands Hatch* markako motoak gidatu zituen hasieran, baina moto pilotuen panteoian lton etxeko moto gorri baten gainean sartu zen: 1962. urtean, *TT Isle of Man* lasterketa mitikoan, 22. postua egin zuenean.



#### Azken itzulia: “This is a man’s world”

Esan dugu lehenago motorraren mundua maskulinitatearen gotorlekua izan dela. Berylek Man uhartean eginiko balentria mingarria izan zen alfa har ugarirentzat. Ilheoria mehatxu bat zenez, pilotu batzuek adierazi zuten hainbeste hildako eragiten zituen lasterketa batean emakume baten heriotzak ondorio larriak ekarriko lituzkeela. Haren parte hartzeak lasterketa debekatzeko arriskuan jartzen zuela salatu eta lizentzia kendu zioten. Moto zale ugarik erabaki horren aurka protesta egin zuten (moto zale guztiak ez gara hain anormalak). Ingalaterrako moto federazioak orduan, kamiseta morea jantzi eta erabaki feminista bat hartu zuen; anorexiaren kontrako deliberazioa, hain zuzen ere: Lasterketan parte hartu nahi zuten moto pilotuei pisu minimo bat ezarri zien, eta jakina, izarren hautsa baino arinagoa zen Beryl lasterketatik kanpo geratu zen.

Gutxieneko pisu horretara iristen ez ziren gizonezko pilotu batzuk, hala ere, lasterketan parte hartu zuten ondorengo urteetan.

Larruzko monoa eseki eta Beryl supermerkatu batean hasi zen lanean. Ez zen beste inoiz lehiatu. Swain, baina, legenda bat da, eta ez Man uharteko lasterketan parte hartu zuen lehendabiziko emakumezko pilotua izan zelako soilik, baizik eta munduko moto lasterketa basatienean onik ateratzeko abilezia ere erakutsi zuelako. 1962. urtea eta gero, motorren munduak izar bat galdu zuen, baina ziur naiz East Londongo supermerkatu bateko bezeroek galaxia oso bat irabazi zutela. Beryl 2007an hil zen.

# Tresna berriak musika berrien bila

Ibon Rodriguez



Ez dakigu zein izan zen lehenengo luthierra. Zein zuen izena? Nongoa zen? Ez dakigu, halaber, zein izan zen luthier horrek egin zuen lehenengo tresna. Nola entzungo ote zen? Zein itxura izango ote zuen? Larruz egina zen? Adarrez? Hezurrez? Harriz? Zenbat nota jotzeko aukera emango ote zuen? Putz egin behar zitzaion ala astindu? Orduko zenbat tresna heldu dira gure eskuetara? Zenbat galdu ote dira bidean?

Musika zer den definitzen ere ez dakigu, zarata zer den. Zergatik den zarata batzuetan musika, eta zergatik den musika batzuetan zarata. Zer den abesti bat, noiztik diren kanta batzuk *herrikoiak*. Ba al dagoen herri bati bakarrik lotutako musikarik. Musika, musikak, munduko musikak... ba al dagoen musikak zenbatzerik ala bat eta bakarra den.

Lehenengo musika-tresna bezain zaharra da musika bera. Denborak bihurtu ditu klasiko tresna batzuk, eta denborak desagerrarazi gainontzekoak. Musikaren darwinismoa.

Tresna bat bide bat da, helburu bat lortzeari begira sortzen den erreminta bat. Eta soinua dute helburu luthierrek, musikarako bide den lehengaia; bestela esanda, bide bat lortzeko bide bat. Horregatik izan behar dute kontuan soinua fisika, eta soinuan eragina izan dezaketen aldagai guztiak.

Musika berritzailea izango bada, tresnek ere berritzaile behar dute izan. Alderantziz esanda, alferrikakoa da tresna berriak asmatzea, orain arteko musikaren parametroak errepikatu behar baditugu.

Lan horretan dihardute luthierrek: batzuek, tresna klasikoak berreraikitzen eta fintzen; besteek, tresna berriak asmatzen. Luthier izena ere berreraiki

eta berrasmatu da denborarekin. Laud izeneko sokazko tresnak eraikitzen zizuteneentzat asmatu zen deitura hori. Egun, hedaduraz, edozein musika-tresna egiten dutenen lanbidea izendatzeko erabiltzen dugu. Gauzak horrela, luthiergintzatik abiatzen diren adarrak ugariak dira, musika-tresnen sailkapenak ere ugariak baitira.

Artikulu honetan ez gara arituko musika-tresna klasikoak egiten dituzten luthierrez. Luthiergintza esperimentalak izango dugu aztergai, tresna klasikoak eskemak hankaz gora jarri nahi dituzten musika-tresnagileen jarduera. Horien arteko nagusienak ez dira, baina, akustika edo fisikari buruzkoak izango, ezta estetikoak ere. Saiatze horren atzean dauden arrazoi, filosofia eta hausnarketak aintzat hartu gabe nekez adituko ditugu tresna horiek xuxurlatu nahi dizkiguten hotsak.

## Tresnen sailkapenak

Kultura guztietan izan dira musika-tresnak sailkatzeko saiakerak. Txinatarrek erremintaren materialari begiratzen omen zioten eta hala, metalezkoak, harrizkoak, zetazkoak edo, besteak beste, banbuzkoak izan zitezkeen. Baina duela sei mila bat urteko sailkapena zen hori.

Gaur egungo sailkapenik erabiliena Erich von Hornbostekek eta Curt Sachsek 1914an ondutakoa da. Ondutakoa diogu, Grezia Zaharrean eta Indian hasi baitziren tresnak sailkatzen soinua sortzen duen prozesuaren arabera, baina materiala ere kontuan hartuz. Sokaren dardara, haizea edo bi materialen arteko kolpekatzea izan zitezkeen soinua sortzeko moduak. Sailkapen azaleko horrek, ordea, bazekartzan arazorik, multzo bat baino gehiagotan egon zitekeelako tresna asko (esaterako, pianoa sokazko tresna da, baina mailu batek kolpekatzen du soka bakoitza

hotsa sortzeko). Hornbostel eta Sachsen lanaren lorpenik handiena izan zen sistema hura edozein tresnatarako erabilgarri bihurtzea; izan ere, haien aurretik erabiltzen zena, musika klasikoko mendebaldeko tresnetara mugatuta zegoen.



Curt Sachs (Berlin, 1881 - New York 1959)

Bikoteak proposatutako banaketaren arabera, tresnak idiofonoak izan daitezke -soinua gorputzaren beraren dardarak sortzen badu (txalaparta)-, *membranofonoak* -gorputzean tenkatutako membrana bat denean soinu-sortzailea (danborra)-, *kordofonoak* -arrabita, gitarra...- zein *aerofonoak* -txirula...-

Fisikariak ez garenez, ez dugu guk fisikaren bidezko sailkapen hori zalantzan jarriko, eta ez gara gu izango musika-tresna zer izan daitekeen eta zer ez mugatuko dugunak. Lan handia egin baitzuten -eta egiten dute- batzuek muga horiek urratu nahian, ideia soil hau kontuan izanda: soinuaren emaitza alda dezakeen guztia da musika-tresna.

Jakina, objektutik -edo soinuaren fisikatik- harago eramaten gaitu baieztapen horrek: hitzak, ideiak, gertaerak musika-tresnatzat har daitezke. Eta ez soilik musikarako; artearen gainontzeko diziplinetarako baita aplikagarria ikuspegi hori. Aintzat hartu behar dugu aldaketa ekarri zuen artista asko ez zetozela musikagintzatik, baizik eta eskultura, margogintza eta artearen bestelako esparruetatik, eta ordurako arlo horietan zuten garatua ikuspegi hori. Adibide nabarmen bi: Marcel Duchamp dadaista eta surrealista, eta Luigi Russolo futurista, biak XX. mende hasierako urteetan aritutako margolariak.

### Ready-made tresnak

Lehenengoak objet trouvé (edo *ready-made*) izena erabili zuen artistikotzat hartu ohi ez diren objektuak izendatzeko. Objektu horiek berezko testuingurutik ateratzean arte bihurtzeko aukera mahaigaineratu zuen frantsesak. Hala egin zuen pixontzi bat museo batean ezarri zuenean, artelan izendatzeko. Eta ideia horretaz baliatu izan dira musikariak bi koilararekin edo anis botila batekin erritmoak jotzeko. Duschampek kontzeptuari *ready-made* izena jarri zion. Objektuen birziklatzea da, berrerabiltzea. Eta arte/artista bezala ulertzen zena hankaz gora jartzea.

Russolo ere ez zen musikaria (edo, Duschampek esango zionez, ez zekien musikaria zela), eta hala adierazi zuen 1913an idatzi zuen *L'Arte dei rumori* manifestu futuristaren amaieran.

*“Ni ez naiz musikagilea. Hortaz, ez dut preferentzia akustikorik, ez defendatzeko konposaketarik ere. Margolari futurista huts bat naiz, eta hainbeste maite dudana arte batera itzuli nahi dut dena berritzeko dudana grina. Horregatik naiz musikagile profesionalak izan litezkeena baino*

*ausartagoa. Nire ageriko ezgaitasunak ez nau kezkatzen. Izan ere, sinetsita nago ausardiak eskubide eta aukera guztiak merezi dituela. Horregatik uste dut musikaren eraberritzea zaraten artearen bidetik etorriko dela”.*

### Intonarumori - Zaratagailuak

Inguratzen gaituen kutsadura akustiko hori musikatzat hartzea, geureganatzea eta geure alde erabiltzea izan zen, beraz, Russoloren manifestuaren ekarpen kontzeptualik garrantzitsuenak.

Duela hainbat mende, zaraten eskasiaz hitz egin genezakeen bezala, Russolok, XX. mendean, zaraten asetzeaz hitz egiten zuen. Zer esango luke orain, gure artean balego? Bada, ziur aski, inguratzen gaituen zarata, soinu, tinbre kopurua biderkatu den neurri berean biderkatu direla musika egiteko aukerak.

Soinu klasikoak behin eta berriz entzuteaz gogaituta, Intonarumori izeneko zarata-tresnak asmatu zituen, zaraten gaineko nolabaiteko kontrola izateko. “Zaratagailuek” zarataren ezaugarriak (bolumena, tonua, oszilazioa...) kontrolpean izateko mekanismoak zituzten.



Russolo at his Intonarumori, photograph by Roger, ca. 1910.

Horrela, sailkapena egiteko *intonarumori* bakoitzak sortzen zuen zarataren izaerari begiratzi zion: burrunbariak (trumoiak, leherketak...), txistukariak (ufadak, purrustadak...), xuxurlariak (furrundariak...), kolpekariak eta gizaki/animalien berezko soinuak (oihuak, hasperenak, uluak...).

Mende oso bat igaro da Russolok bere manifestua idatzi zuenetik eta oraingo tramankulu mekanikoek, inguratzen gaituzten fabriketako mekanismoek, ez dute zerikusirik ordukoekin. Egunero sortzen ditugu soinu berriak eta egunero galtzen beste batzuk.

### Partitura, papera

Manifestuaz gain, Russolok hainbat plano utzi zituen idatzita; *intonarumori*-ak eraikitzeko jarraibideak, alegia.

Russolo jaio baino askoz lehenagotik idatzen da musika. Tonua, bolumena, abiadura, erritmoa eta beste hainbat ezaugarri irakur daitezke partituretan, kodeak ikasiz gero. Gaur egun ordenagailu batek ere irakur eta jo dezake partitura bat (eta badago pentsatzen duenik gizakiekin alderatuta alde handirik ez dagoela emaitzan).

Baina partitura laburregi geratzen zitzaion askori, ezinezkoa baita adierazkortasunaren inguruko ohar zehatzik egitea. Horregatik hasi ziren autero batzuk ohar bereziak txertatzen beren obratan, interpretatzailearengan eragiteko. Ezagunenak, Eric Satiak bere orrietan interpretatzaileari egiten zizkion ohar/aginduak: “Isilka misilka, mesedez”, “Gozatuz, ez izan lotsarik”, “Dantza ezazu barrutik”.

Badago ohar horiek soilik erabiliz obra bat sortu duenik. Fluxus mugimenduko

LaMonte Young-en pieza batean interpreteak pianoa bultzatu behar zuen horma eraitsi arte. Huraxe zen piezetako bat.

Gure artean, lan ederra egin zuten Alex Mendizabalek eta Xabier Erkiziak 2005ean, S.P.A.P.S. izenez atondu zuten liburuxkan. Hainbat lagunek hitzez zehaztu zituzten hainbat kontzertu teoriko. Honatx Chris Blazen-en bat, adibide gisa:

### nire kontzertua

pertsona bakoitzak begiak itxi eta arnasketa eta bihotz-taupadak entzun behar ditu.

### Kultura

Kontzertu teorikoek pertsona bakoitzaren *background*-a tresnatzat hartzera eramaten gaituzte, kulturaren esparrura, norberak jaiotzetik jaso izan duena soinuarentzako aldagai izan baitaiteke. Jakituria, gustua. Gizakiak erabakiak hartzerakoan pisu handia duten kontzeptuak. Tresna bakoitzaren eboluzioan zerikusi handia du luthierraren kulturak eta ezagutzak; bere gustuak, bere eraginek tresna berritzeko bideak zehazten laguntzen dute. Eta horien ifrentzuak ere baliagarriak dira: "desjakitea", "desikastea", norbere gustuari eta itxaropenei uko egitea. Tresna abstraktuagoak, nahi bada, baina hasierako definizioarekin bat datozela ezin uka.

### Tresna-egileak Vs. tresna-desegileak

Instrumentu berriak sortu beharrean, klasikoak moldatzen aritzen da artista asko; batzuetan, tresna klasikoari elementuak gehitzen dizkiete eta, besteetan, kentzen. Beharrak bideratuko ditu aldaketak batzuetan; soinu berrien bilaketak besteetan.



John Cage, pianoa moldatzen.

Arlo horretan maisu genuen John Cage estatubatuarra. Bere sorkuntza ezagunena, "piano moldatua", 1938koa da. Moldatze horretarako Cagek, pianoaren ohiko afinazio klasikoa eraldatzeaz gain, torlojuak, paperak edota sardexkak jartzen zituen pianoaren soken artean. Tresna berrituaren emaitza akustikoak zerikusi handiagoa zuen perkusio tresnekin, sokazkoekin baino.

Pertsona gutxiak egin izan diote musikari John Cagek egin zion ekarpenaren tamainakorik. Piano moldatutik harago, aleatoriotasunaren bueltan egindako lan teorikoa nabarmenduko dugu, bere lan-tresna bihurtu baitzituen mentura eta matematika. Ez zen bera, ordea, lehenengoa izan.

### Matematika eta mentura

XX. mende hasieran matematikaren esparruan egindako aurrerapenei leku egiten hasi zitzairen artearen diziplina guztietan, eta ezinbesteko tresna bilakatzen dira musikagile askorentzat, nahiz eta modu ezberdinetan baliatu. Konposaketetarako ezinbesteko tresna bilakatu zen.

Batzuek, (Iannis Xenakis greziarrak, kasu), ekintza musikalaren gainean erabateko kontrola izateko baliatzen dute matematika beren konposizioetan.

Matematikaren erabilera muturreraino eramanez, interpretatzaileak ez zezan eraginik izan emaitzan. Hala ere, matematika zerbitzu artistikoaren menean erabili behar zuen beti, adierazkortasunari uko egin gabe.

*"Probabilitate-kalkuluaren legeak premia konpositiboengatik .hasi nintzen erabiltzen Baina beste metodo batzuk ere bidegurutze berberera heldu ziren: gertaera naturalak, hala nola, txingorrek edo euriak azal gogorraren gainean egiten duen talka, edo txitxarren kantua zelai batean, udan. Milaka soinuk osatzen dute soinuzko-gertaera hori. (...) Aleatoriotasunaren legeen arabera artikulatzen da. Horrelako soinu-masa bat sokazko tresnekin sortu nahi duen konpositoreak lege matematikoez jabetu behar du derrigorrean (...) "*



Iannis Xenakis, bere estudioan.

Xenakisek ez bezala, beste batzuek musikaren gaineko kontrolatik aldentzeko erabiliko zuten matematika. Besteak beste, lehen aipatutako Duschampek eta John Cagek, aleatoriotasuna erabiltzen dute bere obraren emaitzak ezberdinak izan daitezen exekuzio bakoitzean, eurek emaitzaren gainean izan lezaketen kontrolari muzin eginez. Bide horretatik hasiko dira, beraz, matematikazko ausazko eragiketa konplexuak, algoritmoak, kartak edo bestelako tresnak erabiltzen, beren konposizioetan oinarri izango ziren hautuak hartzeko. Ez ziren lehenengoak, baina. Mozartek

berak, 1777rako, egina zuen jolas bat musikariak ez zirenentzat, dadoak boteaz baltsak idazteko.

Matematikaren bi erabilera kontrajarri ikusi ditugu, beraz (hertsia eta ausazkoa). Emaitzetan, ordea, Cagen ustez, bat zetozen Xenakis eta bera:

*"Neure buruari galdetzen diot ea Xenakis hain urrun dagoen bilatzen ari naizen horretatik -ez esaten duenetik, baizik eta lortzen duenetik-".*

Batzuek zein besteek matematikekin izango omen zituzten buruhausteeke beste dimentsio bat dute orain teknologiaren aurrerapenei esker. Ziur aski haien eragiketarik klik birekin konpontzen dira gaur egun, baina aukera berriak ere izugarri zabaldu dira.

### Espazioa

Mentura aipatu dugu, eta matematiketarik at badago gizakiaren kontrol kontzientetik ihes egiten duen elementu asko, elementu meteorologikoak, kasu.

Natura gizakia baino lehenagokoa da, baina gizakiak *ready-made* bihurtu du natura, bere nahietarako. Haizeak harpa eolikoari soinua aterarazten dionean, gizakiaren kontrolpetik aldentzen da musika. Hamaika dira elementu meteorologikoak kontuan hartuz eraiki diren tresnak.

Espazioaren ezaugarriek ere guztiz baldintzatzen dute konposizio baten norabidea, eta izaera horren bila abiatu da musikaria, espazioen sonoritateei etekina ateratze aldera. Kobazulo batean eta mendi tontor batean gitarrak sor ditzakeen soinuak oso ezberdinak dira. Eta, hainbeste mugitu gabe, etxeko sukaldean eta egongelan ere bai. Espazioari begiratzen zioten

elizak eraikitzen zituztenean, *capella* abestu beharreko kantua hornen oihartzunarekin ozenago entzun zitezene?.

Espazioaren nolakotasunak buruan dituela aukeratzen dute artistek grabaketa estudioak; kontzertu-aretoek kontzertuak baldintzatzen dituzte; soinu-proban aretoa hutsik dagoenean eta jendez gainezka dagoenean soinuak erabat aldatzen dira.

Anplifikatze-ekipoak diseinatzean, ingeniariaren helburua da entzule guztiak, edozein dela beren kokapena, ahalik eta entzuketara antzekoena izan dezatela.

### Eta elektrizitatea?

Tresna izaera betiko aldatuko zuen elektrizitatearen sorrerak. Alde batetik, tresna klasikoaren bolumena amplifikatzeko aukerak erreminta horien eraldatzea ekarriko zuen, ia tresna bakoitzaren bertsio elektrikoa sortuz.

Baina elektrizitatea bera soinu izan daiteke, eta horrela asmatu ziren sintetizadoreak. *Wikipediak* dio sintetizadorea soinua artifizialki sortzen duten tresna dela, baina nork esan dezake gitarra bat naturalagoa dela? Sokaren mugimendua du lehengai batak, korrante elektrikoa eta uhinak besteak.

Gaur egun musika estilo guztietan (elektronikoan bereziki) naturaltasun osoz daude txertatuta sintetizadoreak. Elektrizitatearen bide askok, baina, urratu gabe jarraitzen dute.

### Aro digitala

Eta hari horren beste muturrean tresna digitalak ditugu, konputagailu bidez eraikitzen direnak. Zenbakizko konbinazioak (zeroak eta batak) erabiliz, sistema elektriko-analogikoek sortzen dituzten soinuak imitatzen daude. Ordenagailuan dugun edozein argazki, testu, bideo edo kalkulu-orri bihur dezakegu hots. Azken batean,




horiek ere zenbakizko datuak konbinatuz sortutako fitxategiak baitira. Erraza da, hortaz, zeroak eta batak musikalki irakurtzen dituen software batek irudi baten kodea soinura itzultzea. Xabier Erkiziak Spam disko kontzeptuala eman zuen argitara 2008an, postara heltzen zitzaizkion zabor-mezuak audio bihurtuta. Fitxategiak lehengai, softwarea tresna.

### Soinuen ehiza

Soinu digitalaz baliatzen ez den musikaririk nekez aurkituko dugu gaur egun. Eta aurre-grabatu baliatzen direnak gero eta gehiago dira, bai bere burua grabatu eta bikoitzeko, bai besteen grabatutako zatikiak

kanta berrietan txertatzeko. Soinua enlatatzeak partituraren xede berbera zuen: gogoratzea. Gaur egun, errazagoa zaigu telefonoa atera eta *record* dioen botoi gorriren bat bilatzea soinua harrapatzeko. Soinu hori musika egiteko erabiltzean datza *sampleatzea*, soinu bat gerora berrerabiltzea, birziklatzea, eta orduan grabagailua bera musika-tresna bihurtuko dugu, jogailu; gramofonoa, hortaz, sortu zen unetik baitzen tresna, (tresna analogiko/akustikoa). Ondoren, analogiko/elektrikoak (kasetea) agertuko ziren eta, azkenik, egun gehien erabilien direnak: digital/elektrikoak (ordenagailua, disko konpaktua).



## ALBISTE ONAK

Batzuetan albiste onak iristen dira bazter hauetara  
 ohiko buruhausteak eta atsekabeak ahantzi banitu bezala  
 kalera irten eta parte oneko jendea baino  
 ez dut ezagutzen  
 iruditzen zait ez dela preziso loratzeko gai diren  
 gauza oro lora daitezen aurrera egiteko  
 haizearen norabidea ez da erraza zehazten  
 eta ez da zaratarik entzuten lurralde dorpeetan ere  
 batzuetan pentsatzen dut adiskidetzeko gai izanen garela  
 eta sikiera momentu batez maitasun keinu ezdeus bat  
 eginen diogula elkarri iraganean sobera pentsatu gabe  
 eguneroko gatazka doilor horiek inon topatu ez  
 indarkeria eta amorru oihuak oinazea  
 bai batzuetan albiste onak iristen zaizkidala iruditzen zait  
 eta ene ekinbide oro kontzientzia petraldu gabe burutzen dudala  
 gero akordatzen ez naizen leku batean eseri  
 eta mundua istant batean geratuko balitz bezala  
 gauzak sailkatzen ibili beharrik gabe gauzak nire alboan  
 sentitzen ditut ene adiskideen beso amultsua aldean  
 sarritan zaila egiten zait sinistea baina  
 poema alaiak eskribitzeko desira sentitzen dut orduan  
 irakurleari bere nahigabeak leuntzen lagundu  
 eta irribarre zintzo batez imajinatzen dut berari ere albiste onak  
 iritsiko zaizkiola bere bazter horietara

## BERRIZ ERE

Berriz ere munduratzeko ahaleginetan  
 amaren sabeletik burua atera nahian  
 jarriko banindu bizitzak  
 ezker eskuin begiratu eta  
 nahikoa izango nuke  
 horma eta zola zurien etsipena  
 begiztatu  
 erizain eta sendagileen  
 begitarte nekatua  
 leihoaz bestaldeko autoen joan etorri  
 presazko eta bakartia  
 autobus geltokiko bikotearen  
 irribarre behartua  
 errepideaz bestaldeko lur berdea  
 harrotzen diharduen langilearen  
 azal lakar eta aldarte mikatza

# Salbuespen egoerako poemak

Beñat Sarasola

begiak itxi eta oihu batean negar  
egin beharrean ahoa zabal-zabal eginda  
algara ozenean hasteko,  
Norak etxean zenbait pelikula ikusi  
bitartean egiten zuen bezalaxe.

---

### **AITORTZA**

Gehienetan amorragarria naiz  
samurtasunez jokatzeko ezgai  
izaki triste miserablea  
sarritan izaten dut hurkoa  
apur bat sufriarazten ikusteko desira  
besteren gaitzetan gustua lortzeko gauza  
nire buruaz harritzen naiz  
gehien maitatu izan ditudanak ere  
lurjota sumatu arren nire barnea  
amiñi bat ere mugitzen ez zaidala  
konprobatzen dudanean  
nire gauzak nire jomugak nire apetak  
nire moduak ikusten ditut bakarrik  
nire arrakasta nire irudia nire ospea  
nire mundua zaindu  
adiskideak umiliatu izan ditut inoiz  
maitatu nautenak gutxietsi  
lagundu nautenei bizkarra eman  
behar izanez gero zu zeu salduko  
zintuzket nire probetxurako  
oinaze askoz gehiago eragin dut  
pairatu baino eta  
ez dut lotsarik sarritan  
zeinen amorragarria naizen esanez  
nire burua zuritzen ibiltzeko

---

### **NEGUA**

Gogoan ditut igandetako paraje izoztuak  
neguak indartsu eragiten zuen  
eskuak bildu eta hatsez berotu ohi zituen aitak  
salda beroa edaten genuen ostatuan  
ez dakit jada non geratu den negua  
esku ahurra zabaltzen dut otsailean  
baina aspaldi da elurrik egiten ez duena  
zuhaitzak puztu balira bezala da  
ez dute elurraren zama eraman beharrik gainean

lortatzik gabe ez dago jakiterik  
jendearen ibilbidea orain misterio bat da  
autoak bide bazterretan ikusten nituen baratuak  
amak besotan hartu eta bizkarrean  
astintzen ninduen berotu nahi banindu bezala zen  
dena sosegu betez isilean  
gehienez ere hegaztien hegalen astintzea  
aditzen zen nonbaitetik  
eta abioien lerro zuria ortzean  
orain ere  
batzuetan zeruak halako gris kolore trinkoa  
hartzen du leihotik begira  
ilusioa pizten zait atzera  
kontua galdu dut honezkero ordea  
elurrak erre egiten omen du  
baina orduan ez genekien  
bakardadea etorri zen behin neguaren orde

---

### **BILDUMA**

Porrot eta galera guztien bilduma egin ostean  
bazter atsegin batean paratuko naiz  
ene biziak zinez mereziko balu bezala jokatu  
eguzkipean  
gaztelu peko malkar berde batean etzan  
eta ene jaioterrira lerratuko dut soa  
ene haurtzarora  
zama dorpe bat  
gainetik kenduko banu bezala izango da  
belaontzien kulunkak sekula  
ikusi izan ez banitu legez atzeman  
munduak baduela forma eder bat gordea bere baitan  
ospakizun xume bat egin bazter honetatik  
oraindik sikiera imajinatu ezin badut ere  
noizbait ene porrot eta galera guztiak  
gibelean uzteko kapaz izango naiz  
eta aurrera egin azkenean  
zoriona posible balitz bezala

**BARNEA**

Nire barnea konformagaitza da  
zerbaiten alde egin eta berehala  
aditzera ematen dizkit haren miseriak  
beti dizkit seinalatzen beste bide batzuk  
eta han barneratzen naizelarik  
ea segur naizen dit galdegiten  
nire barneak ez dit bakerik eskaintzen  
beti dizkit ematen atzera jotzeko motiboak  
gero zeinen koldarra naizen gogorarazi  
eta nitaz trufatzen da gupidagabe  
nire barnearekin adiskidetzeko modurik  
izango banu dena diferentea litzateke  
printzipio ukaezinenak ere  
ukatu ditut nire barnearekiko  
lasaitasun apur bat lortzeko  
baina alferrikakoa da  
nire barnearekin ez dago zer eginik  
beste edozein du ni baino maiteago

---

**AULKIA**

Ni eta aulki ziztrin honen artean  
mundu oso bat ezkutatzen da  
zabormendi erraldoiak  
eta ulertzeko zailak diren zeinuak  
sosegua eskatzen dit jende askok  
izan dezadan patxada nire bizitzan  
eguneroko aritu behar honen kontra  
errebelatzea ezertarako balio ez duela  
eta distantzia honen inguruan  
pentsatu nahiko nuke orain  
eduki argitasun apur bat nire bidean  
eta inoiz nire alboan paratu direnetan  
sinetsi itzulera zinezko batean  
ez dakit neurri zentzuzko batean  
paisaia harrigarri batzuk  
sortzen badira nire baitan agian  
errepikatuko ditut zenbait ekintza  
aulki ziztrin honetan esertzen naizen  
bitartean


**ERRAZ***I.G.-ri*

Ez dela beti erraza bizitzea  
oztopo errore oinazeak pilatzen zaizkigularik  
batzutan ez da aski gure borondatearekin  
dena berriz ere ordenean uzteko  
munduari buruz buru so eginez  
bai gezurra dirudi  
baina batzutan ez digu balio  
gure fede indartsuenak ere  
iragana dagokion lekuan utzi ezin  
sarritan pentsatu dugu  
ez da beti erraza bizitzea  
eta arrakalak erakutsi elkarri  
ez gara hain bakanak zauriak egiten gaitu  
haragi begi harkaitz zain  
gure minen babesean  
egin dugu barre  
egin dugu irri harriduraz begiratu  
elkarren ondoan etzanik  
urrats ematea zeinen zaila den  
ertz bihurri guztiak izan ditugu aldean  
bizi izan gaituzte istant batez  
simetria irregular orok  
marraztutako lerro zuzen eta okerrek  
zenbaitetan nekezagoa da  
zorionez arnas egitea  
errazagoa minduraz itotzea  
nola ahaztu zaigun  
ahaztu genuen gauzak aise egitea  
eta orain ere pentsatzen dut  
bizitzaren gaitzean  
distantzia zeharkaezinetan  
luze irauten zuten minutu ederretan  
ez dela beti erraza bizitzea  
esan genuela  
baina merezi genuen merezi dugu  
eta urrutitik heltzen diogu elkarri  
helduko diogu indarrez  
urrun egonik ere  
eta laster bizitza atzera erraza dela  
sentituko dugu ozenki bai berriz ere

# «*Beroa nabari da atzean*»

Ekaitz Goienetxea

*Luxo Perez, 'Catarsis Rocksteady'*



Eguzkia ari du patioan eta Laurel Aitken tokadiskoan. Ahuntza beeka dabil abestian. Ura, ura mesedez. Domeka lehor sapa itzartu da, eta buruko minarekin. Bariku gauetik domeka goizalderaino egin dute dantza orain euren burua urkatu dutela diruditen zapata urratuek. Ska eta rocksteady. Barikuan, single pintxada beltzarana Bermeon. Zapatuan, babarrun janarekin abiatutako ska jaialdia goizerraino. Izerdia behegainetik eta belarrietaraino. Gaur sofazulo tokatzen da.

Sofan etzanda dagoenetako bat, Lutxo Perez kazetaria da (Euskalegria, 1982), *Catarsis Rocksteady* liburuararen idazle eta autoeditorea, eta beste abar luze bat. Zapatuko jaialdian aurkeztu zien bere liburua Gernikako Astrara hurreratu zirenei, indaba platerkadaren osteko patxarana eskutan, proiektore eta bafleekin lagunduta, 60ko urteetako Jamaikako argazki zuri-beltzak eta rocksteady adibideak erakusten.

Hau ez da elkarrizketa bat izango, inork ez du prestatu galderarik aurretik. Grabagailua piztu eta berbetan hasi, beste barik, horrela, datorren moduan. Testuari ganora apur bat emateko, soinu banda ipintzeko bi proposamen botako ditu Lutxok, rocksteady estiloaren Jamaikako bi disketxe nagusien bidetik:

«Artikulu hau irakurri nahi baduzu soul distiratsua bidetik, jarri *Down On Bond Street* (Tommy McCook & The Supersonics, Treasure Isle); bestela, kobazuloko iluntasuna nahiago duenak, *Step Softly* (Bobby Ellis & The Crystalites - Studio One)». Gura duzuenen. Hor doaz grabagailuak harrapatu zituen berba batzuk domeka ganorabako hartan

—Beroa entzuten zaie grabazioei, ezta?

—Bai, motel, Jamaikako musikaren marka da. Skatik hasi eta 80ko dancehalleraino, bai. Beroa nabari da atzean. Eta gero estilo bakoitzak bere erara interpretatzen du bero hori. Ska musikaren kasuan, giro kiskalgarria eta erritmo frenetikoaren kolpe asinkopatuekin, poh, poh [tronboi keinuak] eta dantza zoroa eta izerdia. Rocksteady musikan, ostera, kresala darie baxuen notei, giro mariñela imajinatzen duzu, zeru oskarbi urdina eta kostaldea. Uste dut asmatu zutela beroa harrapatzen... Eta beroa hor dago: ikusi nahi duzun tokian, ezta? Ez dago harreman zuzena musika eta beroaren artean, baina testuinguru historikoan kokatzen baduzu zure burua, berehala nabaritzen duzu, nik uste.

1966ko uda Jamaikan, irlatarrek gogoratzen duten beroenetariko, merkurioa sutan, ghettoak auzoetan, rude mutilak kale kantoietan... Baina rocksteady musika lehenago ernatu



“Rocksteady enperatriz Phyllis Dillon, bere arerioei goitik begira. Inork ez zuen parekatzerik lortu ez bere ahotsa ez bere afroa”.

zen: «Sartu Youtuben Lynn Tait & The Jets, eta klikatu lehenengo orrialdean agertzen diren abestietako edozein. Beraiek dira rocksteadyaren banda handia, Lynn Tait da fundatzailea, eta pertsonaia hori deskubritu nuenean hasi nintzen ni obsesionatzen musika honekin, bere abestiak dira... buf! zulo beltz amaigabea».

*Lynn Tait momentu hartako gizon maitatuena izan zen. "Inork ez zuen sesiorik egin nahi bera gabe", gogoratzen zuen Boris Gardiner konpositoreak eta abeslariak. (...) Bere presentzia estudio haietan ukazina zen, Ernest Ranglin gitarristak oroitu zuenez, "beti zegoen gauza berriak probatzeko prest. Mundu guztiak nahi zuen zerbait berria: musikariek, publikoak, produktoreek. Baina inork ez zuen lortu elementu guztiak elkartzea*

*bera iritsi eta soinuak antolatzen hasi zen arte". [liburuko pasartea, erredaktoreak itzulia]*

—Ez dizut galdetuko zelan sortu zitzaizun liburua idazteko gogoia, badakit ez zela bat-batean gertatu.

—Gertatzen joan zen. Hasten zara musika entzuten, pasatzen dizkizute tema batzuk, dantzaten dituzu kontzertuetan, kontatzen dizkizute musikarientzako pasadizo sinestezinak, zelako pertsonaia bereziak ziren denak, eta bilaketan sakontzen zoaz eta azkenerako obsesio punttu batek harrapatu zaitu.

—Portadan agertzen dira zure karikatura bat, Jamaikako banderaren koloreak eta Valladoliden argazkia... Zer egiten du hor Valladolididek?

—Ba liburua idazten amaitu nuela Valladoliden, eta horrek nire bizitzako aldaketa pertsonal batzuekin du zerikusia, hara bueltatu nintzelako bizitzera [Vigon urte batzuk egin ostean]. Musika estilo horri buruz hamaika bertsio eta kontraesan daude, eta nik denak aipatzen ditut eta neure kontakizun pertsonala gehitzen diet. Hori da nik eman ahal niona testuari. Bestela, badago hortik zehar pila bat informazio aurkitzeko modua.

Bezperako liburu aurkezpenean, kontuan hartuta entzuleek babarrun eltzekada itzela ahoratu berri zutela, inor lokartu barik amaitzeak meritu handia dauka. Disfrutatu genuen hitzaldia, argazkiak, abestiak. Asko daki Lutxok, eta bizi egiten du kontatzen duenean. Berak jarraitzen du grabagailuan, liburua idazteari buruz:

—Diziplina ezarri behar diozunean zure buruari borondate hutsez idazteko gauza bat, planteatu barik bueltan ezer ekarriko ote dizun autoeditatuko duzunak... Ba hori pasioagaz egiten da. Bestela ezin da. Eta Valladolidera etorri nintzenean hori nekarren, aldaketa handia bizitzan eta pasioa musika horrekiko.

—Eta abestiez idaztean... Zelan deskribatzen da abesti bat?

—Frank Zappak esaten zuen musika idaztea zela arkitektura dantzatzea bezala. Arriskua dago zorroztasun barik egiteko. Teknikoki deskriba dezakezu baina ni ez naiz musikologoa. Alde tekniko apurrari alde pertsonala gehitzen diot, zer eragiten didan entzuterakoan, eta horrekin uste dut badiozula zerbait, zer iradokitzen duen bederen.

—100 abestiko zerrenda bat osatu zenuen, liburuarekin batera entzuteko. Baina ziur abesti batzuk kanpoan geratu zitzaizkizula. Zeintzuk deskartatu zenituen eta zergatik?

—Kanpoan geratu direnak dira besteak ezin nituelako zerrendatik kendu, gehiegi gustatzen zitzaizkidan sakrifikatu ahal izateko. Testuari bigarren pintura geruza bat emateko hasi nintzen abesti zerrendak prestatzen, atalen arteko tarteetarako, eta ordenatuta neuzkan abesti pila karpeta batzuetan, eta zera, ba hori, 100 kopuru borobila hartu eta niri gehien gustatutakoak batu nituen, eta kronologikoki ordenatu, baina neuri gustatzen joan zitzaizkidan ordenean.



"Prince Buster mikroa astintzen uppercut batekin. Kantoitik begira Rico Rodriguez eta bere tronboia".



—Eta zein izan zen maitemindu zintuena azkena?

—Ba kuriooa da, baina aspaldi ezagutu nuen *Tougher Than Tough*, Derrick Morganena. Oso ezaguna da eta rocksteady musikan oinarritzkoa, lehenengoetarikoa delako eta rude boysen tematikaren hazia delako. Baina agian horregatik, oso popularra eta ezaguna izateagatik, ez nion jaramon handirik egin hasieran. Hala ere, liburuan pisu handia dauka, eta justu bukaeran, liburua amaitzeaz nuela, konturatu nintzen agian ez niola merezi zuen arreta eskaini, eta joder, ebidentea eta ezaguna izan arren, badauka zerbait, baina amaierara arte ez ninduen txunditu eta zerrendako azkena da.

Liburuak, kalera irten denean, mugimendua ekarri dio Lutxori. Radio3 irradian egiten du irratsaioa hamabostean behin, Charlie Faber-en programan; han eta hemen ibiltzen da single jamaikarrak pintxatzen, eta badabil Sustraians taldearen sare sozialak kudeatzaile ere. Berak eskatu du gaia ateratzea:

—Galdetu ea zer moduz Sustraians.

—Zer moduz Sustraians.

—Aurten hartu dudana poz handienetakoa da.

Iosu Martinez agertuko da hemendik aurrera solasaldian: barañaingarra, Euskalegriako Lee Perry (dakienak badaki) eta Lutxoren laguna kazetaritza fakultateko lehenengo egunetik. Askok maite du Lutxok.

—Iosu, lagun mina izateaz aparte, musika estilo honetan murgildu ninduenetakoa bat da. Bera izan

da nire irakurle-figura hori liburua idaztean. Eta orain, liburua amaituta, bera dabil reggae musika proiektu berrietan, eta lehen grabazioa Rocksteady Ladies izan da [Barañaingo lau neskekin lau hizkuntzatan grabatutako lau abesti]. Poza ematen du, elkar kutsatuta irten diren gauzak direlako.

—Badauzkate dub tematzar batzuk izugarri onak.

—Broken Horns albumekoak diozu? Reggae pepinazo hutsak dira.

—Oso soinu zaindua dute, baina era berean, halako batean, tartekatzen ditu losuk halako kuña bizarro batzuk...

—[Barre egiten du] Umorea da losuren ezaugarrietako bat, ezer ez hartzea seriotasun handiegiarekin, eta hori asko gustatzen zait. Da musika lantzea eta da gogoak ematen dizuna egitea, jolasari merezi duen garrantzia ematea.

Hasierako Laurel Aitkenen ahuntza gogoratu, eta Barañaingo laguna animalio larreetan grabatzen imajinatzea ez da zaila.

—Ahuntzak grabatu beharko lituzke.

—Ba bai, jode; oso jamaikarra da horrelakoak sartzea abestietan.

Eta barreka eta tentelkerian, grabagailuak minutu batzuk gehiago dauzka erregistratuta. Nabaritzen da beroa. Euliren baten hegaldiaren zalaparta. Ez du merezi transkribatzeak gehiago. Ezer berezirik ez: laguntasuna, oroitzapenak, bihotz kontuak.


Musika eta testuak autoeditatzera bultzatzen zaituzten arrazoi zentzubako zoragarri horiek.

• **Catarsis Rocksteady liburua eskuratzeko:**  
www.33series.net

• **Lutxoren rocksteady kuttunak entzuteko:**  
open.spotify.com/user/lutxo73

• **Sustraians taldearen webgunea:**  
sustraiansrecords.com

• **Broken Horns (dub temazoak eta kuña bizarroak):**  
soundcloud.com/sustraians-records/sets/amenaza-spacial



"1967an, Alton Ellisek inoiz entzun ditudan abesti erromantiko zoragarrienak grabatu zituen

# Goizalde Landabaso *Denborak kontzientzia ahaztu duen tokia*

Amsterdam. Centraal Stationen atzeko aldeko moilatik aurrez aurre ikusten da Overhoeks auzo berria. Amsterdam iparraldeko bazterretik atera eta inguru biziberritzeari ekin diote. Europako beste zenbait hiritan legez (Londres edota Lisboa) mundu berria asmatu nahi dute. Belaunaldi berrientzat. Etorkezunarentzat. Centraal Station eta Overhoeks artean IJ ibaia dago. Etengabeko itsasontzi eta ferry jariora duen ibai bizia. Moilatik moilara, hau da, alde batetik bestera pasatzeko doaneko ferry bat dago. Orduro. Etenik bakoa. Ibaiaren hango aldean, etxe berriak, taberna modernoak eta are modernoagoa den eraikin bat: Eye. Bertara ailegatzeko, Centraal Stationen atzealdean gelditzen den 56. ferry hartu eta hiru minutu luzetan Overhoeks-en egon zaitezke.

Herbereetako Film Institute-ren egoitza berria da. Vondelpark parkean zeuden lehen, eta 2012an Vienako Delugan Meissi Associated arkitektura estudioak diseinatutako eraikin ederrera joan ziren. Eraikina izugarria da. Kristala eta burdina uztartzen ditu begi itxura duen honek. Bere baitan zine zaleak paradisua aurki lezake urteko egun guztietan, 365 egun zabalik baitago (366 bisurtea egokitzen denean). Eraikina bizirik dagoela dirudi, izan ere, eguraldiaren eta eguneko orduaren arabera bere azala aldatzen du. Gauez, bere argiak dira Overhoeks auzoaren itsas-begi. Egunez, laino eta ibaiaren ur ilunekin nahastu egiten da. Haizeak gogor jotzen dio, etengabe, eta eraikinak irmo eusten dio haizearen gutiziei.

Lau zinematoki ditu, neurri ezberdinekoak. Eguerditik gora eta gaueko ordu txikiak arte etengabea da zine-isuria. Zikloak izan ohi dituzte, nik bisitatu nuenean bi ziren: Alfred Hitchcock eta David Cronenberg-enak. *The Hitchcock touch* (Hitchcock-en

ikutua) zikloaren barruan; *Vertigo*, *The Birds* (Txoriak), *Rope* (Soka), edota *To catch a thief* (Zelan harrapatu lapur bat) eskaini dituzte. David Cronenberg-i eskainitakoan, ostera, inoiz egin zaion erakusketarik handiena, eta bere film batzuk ikusteko modua egon da. Hauxe gain, Herbereetan egindako zineak badu tokirik bertan, eta baita osterantzeko pelikulak, munduko edozein bazterrekoak. Jatorrizko bertsioan beti ere ingelesezko azpi tituluekin. Ez da merkea, ez, pelikula bat ikustea. Euskal Herrian baino apur bat garestiago, hamar euro inguru.

Eraikinak badu sotoan mila metro karratu inguru erakusketara bideratuak. Bidaia interaktiboa egin liteke zinean barrena. Herbereetako Film Institute-k badu 40.000 film, denak digitalizatuak, eta denak eskuragai eta kontsultagai. Beraz, orduak eman zenitzake zazpigarren zeruan.

Denda ederra ere atondua dute museo-gune berezi honetan. Bertan zinearekin zerikusia duten hamaika gauza aurki zenitzake: klaketak, pelikula klasikoak, filmetako soinu banda ezagun eta esanguratsuak, mapak, Hollywoodeko izarren kareetak, biografiak... dendak denetarik du eraikin osotik ibili ostean azken geldialdia bertan egin dezazun (eta bide batez, sos batzuk entrega ditzazun).

Aitortu behar dut hona etorri arte Herbereetako zinemagintzaz ezer gutxi nekiela. Antza denez Lumière anaiek Amsterdamen erakustaldia egin zuten, XIX. Mendearen amaieran. Hala ere, zinemagintzak gorakadak eta beherakadak izan ditu. Zine dokumentala oso garrantzitsua da eta Herbereetatik kanpo badu sona, baina fikzioak gora beheratsua izan da. Bertako 3 pelikulek irabazi dute Oscar saria: *De aanslag*,

## pop pilulak

*Antonia*, eta *Karakter*. Gaur gaurkoz urtean 20 bat fikziozko film egiten dute Herbereetan. 1993an bertako gobernu bere-berea zen zinemagintza izateak eta babesteak daukan garrantziaz oharturik Herbereetako Zinema-funtsa sortu zuen. 2010ean funts hau 35 miloi eurokoa zen. Badugu, bai, zer ikasia.

Zinematokiak bikainak badira, neurri berekoa da taberna. Eszenatoki handi bat mahai-aulkitxo betetik. Gosaldu, bazkaldu edota afaldu liteke bertan. Eraikinaren kanpoaldean haizearen dantza egin zenezake bertan kokatuta dauden mahaitxoetan. Eta barruan, IJ ibaiari begiratzen dion beirate ezin handiagoa. Orduak eta bizitzak

eman litezke itsasontzien sartu-irtenak begiratzen. Argiaren aldarteak ere bertan dira nabarmenen. Denboraren joan horretan, denboraren kontzientzia galtze horretan.

Hau Amsterdango zatirik abangoardistena da. Overhoaks. Berria eta berritua. Etengabeko aldaketan murgildua. Aukera berrien beldur ez den ingurua. Esperimentatzeko gertu dagoen tokia. Ohiko irudietatik at, munduaren abaroa izan litekeen hau, eta, begi erraldoiak, Eyek, patxada eskain diezazuke.



*Pop Pilulen* dealer-ak:

### **BERMEO**

Luma liburu-denda

### **BILBO**

Anti liburu-denda

Muga taberna

La Casa de Atrás, diskoak eta liburuak

Mongolia arropa-denda

### **DONOSTIA**

Kaxilda liburu-denda

Garoa Kultur Lab

### **IRUN**

Gun Club estankoa

### **GASTEIZ**

Zuloa Irudia

### **IRUÑEA**

Katakarak gunea

**Zuzenean ere eska daiteke:**

[poppilulak@gmail.com](mailto:poppilulak@gmail.com)



# Sleaford Mods

## Kokainak piztutako ahohandia

Michico Kamba

*“Haurra nintzela, garagardoak eragindako tripa-handidun tipoak zeuden, 50eko urteetako orrazkerekin; tximiniak ziruditen erretzen, txanpon-makinen ondoan. Orain, berriz, Liam Gallagher estiloko orrazkerak eta hori guztia dago. Mod nostalgia azken bi belaunaldietako buruetan dago grabatuta, ezinbestean. Kaskarkeriaren uniforme berria bilakatu da”.* Jason Williamson, Sleaford Mods.

Garunak astintzeko ahalmena daukaten disko garaikideen existentzia kolokan jarri nuen duela hilabete batzuk idatzitako iritzi-artikulu batean, izan ere, disko berri gutxik jartzen dizkirate barrunbeak hankaz gora. Egun jasaten dugun grabazio, kontzertu, jaialdi, banda eta informazio uholde etengabeak sormenaren demokratizazioa ekarri du, bai eta sormenaren merkaturatze masiboa ere; baina, era berean, kaskarkeria ere errotu da gure inguruan. Egoera horren ondorioz, oso urriak dira harridura sortarazten dizkidaten disko garaikideak, lantzean behin, eta modu ezkutuan, grabazioren bat edo beste agertzen den arren; tartean, lerrootara ekarri dudana Sleaford Mods egitasmoaren *Divide and Exit*. Disko horren erritmo eta hitzak burmuinean iltzatu zaizkit, eta oraindik bertan diraute, zorrotz.

Sleaford Mods bikote ingelesa da, bietako batek (Andrew Fearn) post-punk oinarri ahulak programatzen ditu ordenagailuaren eta erritmo-kutxaren bidez, baxuaren eta bateriaren arteko konbinazio sinpleak, ESG-ko neskatoen patroia punk-funk zaleekin pareka daitezkeenak; bestea (Jason Williamson), berriz, etengabe ari da abesten base horien gainera, The Fall-en diskografia agorreztina buruz dakien rap kantari bat bailitzan, *fuck* gora, *suck* behera, ozen. “Ez ditugu atsegin konplikazioak, eta uste dut ideia bati ez zaizkiola buelta gehiegi eman behar. Guk egiten duguna,

gainera, basatia samarra da, hortaz, ez du merezi askorik apaintzea”, dio Williamsonek.

Zuzenean, bestalde, ez dute inolako xarmarik erakusten: Garagardo lata eskuan duela, biseradun Fearnek *intro* teklari ematen dio doinuak tirokatzeko asmoz; Williamson, berriz, mod estetika duen gizon heldua, borrokan ari da bere buruarekin, hitz-jarioa agortu arte. Nottingham hiriko auzoetako bidegabekeria kapitalistekin sutan da abeslaria, eta working class sentimendua erakusten du harro. “Andrewek botoia sakatzen du, eta nik gainera abesten dut. Musikak eta bere geraldia eragiten digun frustrazioa transmititzeko modu bat da. Gitarra, baxu eta bateria kontzeptuak jada ez du zentzurik”.

Hala, bi ingeles horien proposamenak xelebrekeria ematen du, *frikieria* hutsa, baina zin dagit formulak ezin hobeto funtzionatzen duela. Antzeko beste egitasmorik ez dut ezagutzen. Emaizta nortasun handikoa da, eta adiktiboa, kokainak eragindako mendekotasunaren antzekoa. Finean, Sleaford Mods PUNK banda bat baino ez da, baina letra LARRIEKIN, egun, hedabide espezializatuen eta ikus-entzuleen onarpena lortu duen arren. “Musikari gisa, nire helburua kapitalismoaren erdian bizirik irautea da”.

### Wu-Tang Clan eta txokolate-barrak

Bikotearen mod sustraiak izenetik harago doaz, izan ere, Williamsonek Small Faces eta Guns N' Roses uztartzen zituen britpop kutsuko Meat Pie izeneko taldean abestu zuen. Banda hori, baina, desegin zen, Williamsonek gehiegizko kokaina kontsumoaren ondorioz. Antza, hiru eta lau gramo jaten zituen gauero. Bizio toxiko hori zela-eta, bere egoerak txarrera egin zuen nabarmen, honoia jo arte. Sosa guztiak substantzia zurian gastatu zituen, ezer ez jatera iritsi arte (*Mars*

markako txokolate-barrak baino ez). Hala, zurrutean, sudurra kiskaltzen eta lan nazkagarri batetik bestera aritu zen, luzaroan. “Orduan hasi nintzen Sleaford Mods irudikatzen”. Hortaz, kokainak eragindako hondamena inspirazio bihurtu zitzaion Williamsoni.

Bada, 2006ko goiz batean, lagun batek Roni Sizeren drum & bass ekoizle eta DJ ingelesaren loop baten gainetik abesteko iradoki zion kokazaleari. Esperimentua grabatu, eta Williamsonek haluzinatu egin zuen emaitzarekin. “Inoiz egin nuen gauza onena izan zen. Etxera eraman nuen, ezin nuen sinetsi zein ona zen”. Horrela abiatu zen Sleaford Mods. Sasoi berean, Wu-Tang Clan rap-tribua deskubritu zuen lankide baten bitartez, bai eta The Streets taldearen lehenengo lanak ere. “Talde horiek kontatzen zituzten istorioak atsegin nituen, gainera, estiloarekin kontatzen zituzten”.

Mod erroak baztertu, eta lau disko argitaratu zituen, Fearn ezagutu arte:

“Williamson ikaragarria iruditu zitzaidan. Nire lagunek gorrotatzen zuten, ez zekiten nola hartu gizon oihulari hura. Niri, berriz, ikaragarria iruditu zitzaidan”. Bien arteko ezkontza horrek hiru lan ekarri ditu: *Wank* (2012), *Austerity Dogs* (2012) eta *Divide and Exit* (2014) laudatua. Single bilduma bat ere plazaratu dute elkarrekin, *Chubbed Up. The Singles Collection*.

Sleaford Mods doinuak egiten duen talde bat baino ideia bat da, kontzeptu bat, borrokaren eta amorraren inguruan ardaizten den soinudun iraina. Hain zuzen ere, mod kulturak goraiapatutako 60ko urteetako *kantu* kontzeptua biziki gorrotatzen du Williamsonek. “Izorra daitezela. Sleaford Mods asmo jakinik gabeko saio batean sortu zen. Aldarrika hasi nintzen nire lagunak egindako death-metal estiloko loop ziztrin baten gainean, eta harrezkeroztik, ez dut atzera begiratu”.

#### Liskarra eta haserrea

Williamsonen hitzak klase sozialen, estatuaren eta lan negargarrien kontrako

korrokada lirikoak dira, Ingalaterrako iparraldeko ahoskerarekin jantziak. “Tudor motako etxebizitzetako larruzko besulki handiek eta muralek / ezagutzen ez dituzten milioi bat alkoholiko kaletar sortu dituzte”, dio *Smithy* doinuak, edo “Estatua ez da berriro ere zure ahotsa izango” oihukatzen du *Under the Plastic and N.C.T.* piezan. Eskatologia ere sarritan erabiltzen du bere hitzen bidezko erasoetan: “Txizaren kiratsa oso handia da, hirugihar ona dirudi”.

Horrekin batera, Ingalaterrako *mainstream* musikaleko protagonista nagusiak ere txikitu egiten ditu elkarrizketetan; mod estiloko ile-kopetadun musikariak dira bere harrapakin kutunak: Paul Weller (The Jam, The Style Council), Miles Kane (The Little Flames, The Rascals, The Last Shadow Puppets)... “Talde ingelesei kontu pertsonalez eta sexuaz hitz egitea baino ez zaie interesatzen. Musika entretenimendua da, horrela izan da betidanik, baina hondoa jo du Simon Cowell (*Operación Triunfo* bezalako telebista saioen burua) eta antzeko

jendearen diru-gosearen ondorioz”. Sleaford Modsen diskurtsoa amorraren inguruan egituratzen da, eta hitz-jario sumindu horrek, eta bere oskol musikalak egiten dute berezi eta erakargarri, areago bizi dugun garai miserable honetan: “Borrokari buruz doa guztia, bai eta borroka hori dokumentatzeaz ere. Dokumentazio lan hori funtsezkotzat hartzen baduzu, eta modu boteretsuan egiteko gai bazara, ergel baten soinua izaten saiatu gabe, orduan, badaukazu zerbait”.

Ikusiko dugu Williamsonen nola kudeatzen duen bere diskurtso borrokalaria, lortzen ari den ospea gero eta handiagoa baita; esaterako, zutabeak idazten hasi da inbertitzaile handien mesedeak jasotzen dituen *Vice* aldizkari arrakastatsuan. Finean, sortzaileen eta kapitalismoaren arteko kontraesan lehia eternoa...

**Oharra:** *Eskerrik asko Javier Calvo eta Oscar G. de Marcosi hasierako zita itzultzeagatik.*





**Pop**  
Xabier Landabidea  
eta Eneko Olazabal,  
Eremuz kanpo  
**uneak,**  
**zinema pilulak**

Barrualdea. Eguna. Bi lagun, bi nerabe. Ez digute esan, baina badakigu New Jersey dela bizitegi-auzoko etxe arrunt honetako nerabe-gela arrunta bere baitan hartzen duen hiria. Disko gehiegixto daude aukeran (ai, 90eko hamarkada), baina arrunt samarra da nerabea ere, Scooby. Haxix-zaletasunak adin horretan eman ohi duen begirada sakon ber galdua, irakurtzea gorroto duena, lagunari begira. Lagunak txirrik ez eskuartean, pistola bat baizik. Aitarena.

Azkarra omen aita, Scoobyren aburuz. Bere burua jartzen du jomugan, baina errusiar erruletarik ez. Lagunari begira gero, baina odolik ez gaurkoan.

Lagunak, gauza bat esan behar diola, ea badakien. Baietz Scoobyk. Gustuko duela, eta ea utziko dion. Baietz berriro ere, hala nahi badu.

Scooby ohean etzan da, gozoki bat janda, disko-jotzailean play emanda. Laguna altxa eta protagonistaren gerrialdera makurtu, biak bat. Kamera da orain Scoobyren aurpegia jomugan duena, eta Stuart Murdoch entzuten hasi gara, kontu-kontari. Harrituta zegoela, zoriontsu izan zela egun batez, 1975ean, eta harekin egun osoa eman zuen amets batek nahastu egin zuela 95ean. Kamera orduan gelako afixa psikodelikoan galdu da, eta sugarrak ikusi ditugu Scoobyren guraso kexatiak hartzen. Stuart isildu egin da orduantxe, baina jakin badakigu beste hainbat kontu duela kantuan kontatzeko. Anaiaren maitale marinela, adiskide desgaituen lehen mozkorraldiez, apaiz istorio-lapurraz, harriduraz, erruaz eta egun bateko poz beteaz.

---

Institutuko lehen egunak soilik izan dezakeen krudelkeria hori. Alkandora zein gona ezin garbiago eta ondo lixatuen eta irribarre zurien. Kanporantz tolestutako mundua, besteei begira

eraiki eta bortxatutako ni horien guztien mundua. Hitez hitzeko esangura aspaldi galdu zuen ingelesezko esaera, maitemina adierazteko: *head over heels*, edo burua orpoen gaindi (denok dakigunean bihotz minez hankaz gora jartzen gaituztela, eta ez hankaz behera). Maitemina baino gaztemina inguruan. Middlesex (bai, benetan Middlesex deitzen da herria) burgo zuri klase ertain-altuko institutu ezin amerikarra goan.

Donald Darko autobusetik jaistearakin bat hasten da abestia. Soinu banda extradiegetikoa, protagonista extradiegetiko (barka, tangenzial, filmaren terminologia kriptikoan) batentzat. Untxi erraldoiekin gauerdian elkarrizketatu, pottokien sexualitateari buruzko teoriak garatu eta suizidio metafisiko-mesianikoak burutzen dituen gazte eskizofrenikoarentzat beste guztiontzat bezalakoa baita bigarren hezkuntza.

Hor dago dena. Hiru minutuko plano sekuentzia batean eta 80ko hamarkadakoa dela letra larriz adierazten duen abestian jasota. Unibertso osoa dago hankaz behera, eta hortaz hankaz gora.

Zurekin bakarrik egon nahi nuen eguraldiari buruz hitz egiteko. Baina zure aurpegiko haurraren kontrako tradizioak begi aurretik kendu ezinik nabil. Distantzia gordetzen dakizu, ukimen sistema eta pertsuasio sotilez. Eta ni miresmenak jota nola behar ote zaitudan hainbeste.

Oh, denbora galarazten didazu ez besterik, denbora galtzen besterik ez zara ari. Zerbait gertatzen da eta maiteminduta nago. Inoiz ez naiz ohartzen maitemintzen naizen arte. Zerbait gertatzen da eta maiteminduta nago. Ah, ez ezazu nire bihotza har ez ezazu bota. Sua piztu nuen eta

erretzen ikusi zure etorkizunaz pentsatu. Oin bat iraganean, zenbat iraungo ote duen. Ez ez ez ez duzu anbiziork. Gure amak eta anaia-arrebek aire garbitan hartzen zuten arnas eta medikua naizela ametsetan. Gogorra baita gizona izatea pistola bat eskutan duzunean. Oh, horren zera sentitzen bainaiz... Zerbait gertatzen da eta maiteminduta nago. Eta hau da nire lau hostoko hirusta lerroan jarrita, gogoa zabal hau da nire lau hostoko hirusta.

Etzeko leihoan eguzkia dir-dir, eta bihotz bat tristatu egin da, bazoaz eta. Gauero bezala esnatu egin naiz zugar pentsatzen, eta erlojuan ordu oro igaro da, bazoaz eta. Maitasunaren promes guztiak zurekin joango dira, ahantzi egingo nauzu. Geltoki ondoan umea bainintz egingo dut negar, bazoaz eta, bazoaz eta. Argiontz baten ilunpean loak hartuko ditu esateke geratutako guztiak. Erloju-orratzen alboan itxoingo dute bizitzeke geratutako guztiak.

Bazoaz, joan egin zara, ama, esnea baino edan ez duzulakoan. Haurra banintz bezala egiten dut nik negar, haurra beharrean belea naizela jakinik. Ahal zenuen bezain goxo hazi zenuen belea.

The dude, el nota edo tipoa. Adin tarte baten bueltan gabiltzanon imajinarioan ez ezik mahai buelta askotako elkarrizketetan ere txertatzea lortu zuen fenomeno zinematografikoa. Antiheroi handia. Alfer maximoa. Lebowski handia. Munduaren aurrean pasotismoz besteko harridura permanentea konbinatzen asmatzen duen Jeff Bridges zoragarria.

John Goodman zeinen aktore (kabroi) ona izan daitekeen erakustez gain, Arizona Babytik egindako sekuentziarik aluzinagarrienak eskaintzen dituen film sailkaezina: alfonbra lapurrak (edo/eta txizatzaileak), behatz bahiketa birtualak,

John Turturroren Jesus bolatokian, Steve Buscemiren errauts esnifatzea...

Koadrilan parrandan gau osoa betetzeko besteko anekdota dituen filma da Lebowski Handia, eta soinu bandan pop momentu bat baino gehiago duen arren, berez oso poppia ez den baina erabiliaren erabiliaz herri abesti (eta hortaz pop) bilakatu den "Besterik gabe etorri naiz (nire egoera zein egoeratan zegoen ikusteko)" antiliserjikoak ekarri behar ezinbestean.

Eta antiliserjikoak dela diogu, ustez Kenny Rogersek LSDaren eragin gaiztoen aurkako ereserki bezala egin baitzuen 1967 hartan. Agian Espainiako Barne Ministeritzak "Atsedunik ez drogarik gabe" kartel haiekin gertatutako fenomeno beraren aurrean gaude, hogeita hamaika urte geroago Coen anaiek "bidaia" haluzinogeno ederra filmatu baitzuten harekin.

Pop-aren kontuak halakoak baitira: pop-arenak.

(Bai, bai, oh-bai, zein egoeratan zegoen nire egoera)

Gaur goizean eguzkia dirdiraka zebilela esnatu naiz eta gogoa paperezko poltsa arre baten barruan aurkitu dut baina hodei batekin estropezu egin eta zortzi miliako erorketa izan dut adimena zero latz baten aurka zauritu dut besterik gabe nire egoera zein egoeratan zegoen ikustera etorri naiz

(Bai, bai, oh-bai, zein egoeratan zegoen nire egoera)

Arima zulo beltz sakon batera bultzatu eta barruraino jarraitu dut eta nire burua ikusi dut herrestan barrurantz eta kanporantz narras hain estu lotuta ezen ezin nuen nasaitu hainbeste ikusiz ezen burua hautsi

bainuen besterik gabe nire egoera zein egoeratan zegoen ikustera etorri naiz

(Bai, bai, oh-bai, zein egoeratan zegoen nire egoera)  
Norbaitek "Apirileko arraina" idatzi zuen letra beltz handitan "Irteerarik ez" zeinuaren gainean oina azeleragailuan errepidetik irten nintzen eta nire burua lehertu nuen. Zortzi milia Memphisetik at eta diru solterik ez zortzi milia inon ere ezen erdigunean zuzen-zuzenean besterik gabe nire egoera zein egoeratan zegoen ikustera etorri naiz.  
Esan dut besterik gabe nire egoera zein egoeratan zegoen ikustera etorri naizela Bai bai, oh bai.

Barrualdea. Gaua, gau iluna, gau ezkutua, enara kanturik gabeko gaua. Jeaffrey Beaumont, Frank Booth, Hector eta enparauak Dorothy Vallens bahitua duten etxebizitzan. Hectorrek lanpara hartu eta, Frank ondoan tente duelarik, mikrofonoa bailitzan eusten dio. Gozoki koloredun pailazoa, hareazko gizon deritzote. Hanka puntetan, gauero, izar-hautsez zipriztindu eta xuxurlatzera datorrit logelara. Zoaz lotara, dena dago ongi. Frank Boothek ezpainak mugitzen ditu, hunkiturik. Begiak itxi eta jitoan egoten naiz gau magikoan barna; emeki egiten dut otoitz, ameslariek nola, eta lo geratzen naiz, zureganako ametsak amesteko. Dorothy gelan sartu da, belus urdinezko txabusina soinean. Frankek hunkiduratik asaldadurara egiten du, zerbaitek barruan krak egin bailion.

Ahotsa entzuten jarraitzen dugu, baina Hector geldirik dago, Franki begira. Stop. Gelditu egin da kasetea. Ametsetan zurekin nabil, ametsetan mintzo natzaizu, ametsetan neurea zara, uneoro; batera gaude ametsetan, ametsetan.

"Musika nahaski bat grabatzeak lanak ditu, arauak eta ñabardurak. Hasteko, besteren hitzak darabiltzagu sentitzen duguna adierazteko, eta hori ez da samurra." Garenak edo egiten dugunak bainoago, gustuko ditugun gauzek definitzen gaituztela ere badio lehen esaldiaren egile patetikoak. Patetikoa baita, hain sentitzen gara bera lakoak, HI-FI ekipoa, orain ordenagailuan, ez daukan transzendentzia berezia eman nahian kantuen harilkatzeari, merezi adina guk baizik gozatu ez dezakegun jakitun.

Aspaldiko neskalagunarekin itzuli berritan, ezagutzen ez duen kazetaria sartu da haren dendan. Besteren doinuak erabiltzea, norberarenak azaltzeko: Uste dut libre dela ilargia, dena argitzen duena, teilatuen gaindi. Uste baino libreagoa ere bada ilargia, harat honat, ager desager. Kazetaria dela ere ez daki, baina Stereolaben doinua zein den galdetu dio. Nerabe egoa puztu dion koipea eman dio gero. Beste zerbait merezi luke filmak kantu horrekin aurkeztu digunak, Twin Peaksen Audreyk beste ezer merezi zuen bezala, hain harrera ona egiten zion beti Badalamentik. Baina, hain da, hain gara patetikoak...



**1966-1971, Larry Macmurtry - Peter Bogdanovich**

**Barru barruan gelditzen diren sekuentziez josita bizi naiz orain hamazortzi bat urte zinta hau ikusi nuenetik lehenbizikoz, eta oraintsu irakurri dut liburua. Eta mezu bat dut zuentzat: Frijitu oliotsua!!**

Argituko dut, argituko naiz. Macmurtryren liburua gordina da, pertsonaiak modu basatian lantzen ditu, oinarrizkoak diren heinean konplexu bilakatzen dira, idazle erromantikoen pare jokatzen du Macmurtryk beraiekin, Thaliako (Texas) giro pisutsuarekin eta hala ere, gauza bera egiten du Bogdanovich-ek bere zintarekin 40 urte igaro ostean. Larry idatzitakoa filmatzen du Bogdanovichek, eta sarritan kontrakoa esango zenuke. Bi obra, bi arte, eta bikaintasun estilistiko bera. Editore jaun txit gorenak lan literario-zinematografiko honetaz idazteko eskatu zidanean, ipurtzuloa parez pare irekitzea ezinbestekoa motel. Plazera eta kiratsa. Gustukoak biak, bizitza...

Harira... arte biek eraman naute ezinbestean beste denbora-plano batera, Hank Willimasen countryra,

50eko drugstore zaharkituetara, gasolina kiratsera, Sam lehoiaren billar aretora, mugaz bestaldeko mozkorraldietara, hautsez metatutako kaleetara eta kafetegiko frijitu oliotsuetara... Bakardaderik itogarrienera.

McMurtryren narrazioa praktikoa da, ez da deskribapen psikologikoetan galtzen. Pertsonaiei azaleratzen zaizkien oztopo eta ziurgabetasunetan jartzen du arreta. Inguruneko hesiak eta dituzten itxaropenak azpimarratzen ditu. Esperimentazioan galdu edota porrota onartu. Azkenetan dauden eremuak, nostalgiak betetako kontakizunak, erresistentziako istorioak... *The last picture show* gauza asko izan daiteke, baina, gauza guztien gainetik mugako obra da.



*"The last picture show"*  
*Herabe kontentagaitzak*  
 Iñigo Bidetxea



**“Batzuetan, Sonny-k , herriko izaki bakarra zela sentitzen zuen. Ez zen sentsazio atsegina, batez ere ordu goiztiarretan, kaleak hutsik zeudenean, azaroko larunbat goiz batean bezala...”**

*Thalian* (- *Archer City*- *McMurtryren* herrian oinarrituta ziurrenik... liburuari autobiografiaren susmoa hartzen zaio) ez dago etorkizunik, biztanleek, geografiaren marjinalitateari eutsita egiten diete aurre eguneroko zereginei. Frustrazio sexuala eta haizea elementu konstanteak dira *village* galdu horretan, eta gazteak berehala zahartzen dira ezintasunean. Amerika sakon eta ahaztuaren paradigma. Vodka eta garagardo bilerak. Testuinguru soziopolitiko eta beraz belaunaldi arteko horretan mugitzen dira pertsonaiak.

Liburuak protagonista nagusia eta bakarra du: Thalia isolatu eta klaustrofobikoa. 50eko hamarkadako herri galdu horretan agertzen dira Sonny eta Duane, bigarren mailako protagonistak, institutuko lagunak, futbol jokalariaik, herritik alde egiteko prest eta espetxeratuak era berean. Ametsak eta mozkorrak.

Jacy ederra ere bertan da, Duane-en neskalaguna eta Thaliako familia boteretsu bateko alaba. Duane-ekin dabilen arren, bere maila sozialeko mutil batekin ezkondu nahi du eta bitartean, femme fatale nerabearen rola antzezten du. Sonny-k entrenatzailearen emaztea liluratu eta affaire ezkutu eta malenkoniatsua bizi izango du harekin. Laztan eta ferekak emakumearentzat eta sexu heldua Sonnyrentzat. Eta hortik dabil Billy geldoa ere, aurreko bien laguna, eta Sam lehoiaren babestua. Hiru lagun zine areto baten aurrean, Texasko komunitate errepublikano galduan barrena (Sam lehoia adibide, agian horregatik eman zioten Ben Johnsoni Oskar saria –akaso, ezkertiar diskurtsoa maneatzen duela uste dut nik-) eta azken pelikula bat.

**Azken emanaldia: *The Kid from Texas-La leyenda de Billy el Niño* (Kurt Neumann, 1950)**

1951, Texas. Telebista “moderno”, zine aretoen Godzilla bilakatu da. Anarene herriko (Thalia liburuan) zine aretoaren azkena ere hurbil da, azken emanaldia

badator... *La leyenda de Billy el Niño*. Akabo zirriak iluntasunean, akabo far west-eko zeharkaldiak, pantaila handiaren xarma, larunbat gaueko plana, txikle trukaketa. Anarene bezala ito da aretoa bere azken emanaldian, eta hiru lagunak desertuko gauean barneratu dira.

Bogdanovichen zintak, modu poetiko eta krudelean erakusten dizkigu hiltzorian dagoen herriaren nondik norakoak. Pertsonaiengana atzetik hurbiltzen da, goitik begiratzen dio Anareneko gizarte hetsiari, bidegurutzetako semaforo eskegietatik. Luxuzko zuri-beltzean filmatua, argazkia dotorea eta eszenaratzea ere naturala, pertsonaien begiradetan zentratua. Dotoretasun biluzia.

Filmaren argudioa zinezkoa da, (gidoia *McMurtryk* eta *Bogdanovichek* idatzia)... hortik pantailan ikus daitezkeen pertsonaien sakontasuna. Porrota eta bakardadea agerian. Badago hala ere, erakusten dizkiguten gazteen izaeran edo jokatzeko moduan halako erresistentziarako grina, espetxetik alde egiteko gogoia. Monotoniari ostikada bat emateko desira. Furgonetako sexua, igerilekuko orgia, sexua emakume helduekin, Mexikoko mozkorraldia (erakusten ez den arren, inplizitua da urdangekin izandako irtenaldia)... sexua azaleratu egiten da Anareneko pausu geldoan.

Ben Johnson, Ellen Burstyn, Cloris Leachman, Cybill Sheperd, Jeff Bridges , Timothy Bottoms... gazteenak ezezagunak garai hartan, zaharrak eskarmentuz

botaka, Bogdanovichen bigarren proiektu honetan parte hartu zuten, eta inkontzienteki (edo ez hainbeste) sortutako taldeak beste nolabaiteko idatzi potoloa merezi du. Sam lehoiak filmean zehar erakusten duen neurritasun eta zimurren parekoa. Agian, beste batean.

Bogdanovichen filmean nerabe kontentagaitzak daude nonahi, (zuzendaria eta *McMurtry* bera ere) nerabezaroaz hitz egiten duen heinean, nerabezaroaren esanahiaz dihardu. Aukeraz betetako lurraldea. Nerabezaroa... azken ihesaldi gisa.

Ez da film bat, buruan puskatzen dizuten kristalezko botila bat da, motel!





Julen Azpitarte  
***Enarak***  
*Euskal psikodelia katolikoa*

Aurtengo udaberrian, *Joxean's Hileben* filmaren proiektzio bat ondu nuen Bilbon, lan-kontuak tarteko. Emanaldian filmaren bi zuzendariak parte hartu zuten, Xabier Padin eta Beñat Iturriozek. Bada, filmaren eszena batean, banpiro koadrila bat ageri da tabernan, zurrutean, musika ere entzuten da; Enarak 60ko hamarkadako euskal taldearen kantu bat, hain zuzen ere. Proiektzioa amaitu ostean, Beñati hurbildu nintzaion, eta kantuaren anekdotaren berri eman. Nire harridurarako Beñatek esan zidan bere aita Juan Joxe Iturriozek Enarak bandan jo zuela. “Zeeeeeer? Zure aita Enarak-eko taldekidea izan zela?”, erantzun nion aztoratuta. 60ko hamarkadako psikodelia zaleen artean kultuzko taldea zela jakinda, ezin nuen Juan Joxe elkarrizketatzeko aukera galdu. Ez naiz gehiago luzatuko, baina Beñati eta Juan Joxeri eskerrak eman nahi dizkiet elkarrizketa hau egiteko erakutsi didaten jarrera ezin hobeagatik. Orain, deskubri ezazue Euskal Herriko pop musikak eman duen beste harribitxi ezkutu bat. Azken orduko ohar bat: Enaraken *Ama* kantuaren bertsio bikaina jaso berri dute Morauk eta Beñardo Goietxek *Arrainentzako himnoak* egitasmoan.

**Juanjoxe, noiz sortu zen Enarak? Donostiako seminario diocesanoan eratu zela irakurri dut, 1968 inguruan, hala al da?**

Bai. Urtebete lehenago agian, nahiz eta Kitxi (Jose M. Iñurrita taldeko organo jolea eta talde-burua) eta biok lehendik aritu, ordu libreetan, bera pianoa eta ni kantari, Erviti musika etxean erositako partiturekin jolasean, momentu horretan popularrak ziren abestiak ikasten. Orduko irrati-telebistak bultzatutakoak: San Remoko festibala, Eurovision eta urte haietan Europan zehar zeuden kanta-zerrendetakoak...

**Nola bururatu zitzaizuen banda moderno bat abiatzea?**

Nik uste, gure kurtsoko ikaskide baten ideia izan zela, Jimenezena, gaur egunean apaiza dena. Agian, Seminarioan noizbehinka egiten ziren jaialdiak ikusita bururatuko zitzaion. Gure kurtsuan baziren beste lagun batzuk (Meltxor, gero taldean baxua joko zuena, Antton gitarra jotzen zuena...) bakarka edo bikote gisa aritzen zirenak, eta Jimenezi talde zabalago edo modan zegoena egitea bururatuko

zitzaion. Orduan, Beatles, Rolling... talde horiek ziren ezagunenak. Guk bagenituen baxua, gitarra erritmikoa, gitarra bakarlaririk ez, baina bai organo jole bikaina, baita kantaria ere. Horrela eman genion hasiera gure musika-ibilbideari. Oraindik ez genuen izenik, ez organorik, gitarra espainolak pastillekin eta organoaren ordez ahotik ateratzen zen teklatu koxkor bat, ahoko haizearen eraginez sonatzen zuena. Gure lehen kontzertua Azpeitia aldean izan zela uste dut, bertako antzoki batean, eta gure nerbioak ikaragarriak ziren, seminaristak ginen eta neskek agur egiten zigutela-eta artega geunden. Inuzenteak ginen, eta horrela segitu genuen aurreratze luze batean. Denboraldi honetan LIMi izena erabili genuen. Lopez, L; Iñurrita, I; Maritxalar, M eta Iturrioz, I. Talde serioa izateko bateria falta zitzaigun, eta horretarako, gazteagoak ginenean ezagutu genuen eta seminarista ez zen donostiar gazte bat sartu zen taldera, Jesus M. Calvete. Behin taldea osatuta, lehenengo emanaldia Igeldon izan zen. Hasierako izenak ez zuela balio eta igeldotarrei izen berri bat jartzeko eskatu genien. Izenik gabe joan eta Enarak izenarekin bataiatuta bueltatu ginen; bertako apaizak jarri omen zigun izena.

### **Nondik iritsi zitzaizuen beat, psikodelia eta bestelako estiloen oihartzunak? Irratitik ala diskoetatik?**

Ezagutzen genuen musika orduko irrati-telebistaz jaso genuen. Donostian bazen musika inguruan mugitzen zen jende interesgarria; esaterako, Ramon Trecet, horrek musika entzuteko saioak antolatzen zituen irrati batean. Buen Pastor inguruan bazen denda bat ere, eta beheko solairuan binilozko diskoak saltzen zituen emakume aholkulari eta saltzaile fina; diskoak nahiz eta binilozkoak izan, entzuteko aukera ematen zigun... Aldizkariak ere baziren, eta horietan agertzen zen garaiko Europan egiten zen musika! Nahi genituen diskoak hemen ezin aurkitu, eta askotan, beste aldera jotzen genuen bila.

### **EP bakarra grabatu zenuten. Nolakoa izan zen grabazioa? Zuen instrumentuekin ala alokatuekin grabatu zenuten?**

Grabaketa Urrietako Salestarrek bere etxean zuten antzoki batean egin



genuen. Ekipoa, bere teknikoarekin, Bartzelonatik etorri zen. Gure instrumentuak erabili genituen, eta zuzeneko grabaketa egin genuen; hasi eta bukatu arte denok batera. Herri Gogoak (Iñaki Beobide) diskoetxeak antolatu zituen grabaketak. Egun horretan Ez Dok Amairuko gehienak ere bertan izan ziren bereak grabatzen. Mikroak izango ziren bereak, baina gitarrak, bateria eta Farfisa organoa, berriz, gureak!

### **Kantuen sonoritateari dagokionez modernoak izan arren (beat, psikodelia...), herri kantuak moldatzen zenituzten, edo Piarres Lafitteren bertsoak erabili ere... euskara mundua modernizatzea zen taldearen helburua?**

Seminarioan egotea suertatu zitzaigunez, musika asko entzun dugu txikitatik. Saturraranen, astebukaera guztietan oheratzerakoan edo jaikitzerakoan, tinbrearen ordezkari musikaren laguntza izaten genuen. Barruraino sartu zitzaizkigun momentu horiek: 10-11 urte, internaduan, etxetik urrun... Juan Mari Lekuona izan genuen irakasle, eta berarekin kanta zahar pila bat ere ikasi, bertsoen mundua eta berak asmatutako kanta: "Arrats bakardadean, niregan biltzean, argia nahi nuke...", kanta ederrak!!! Frantses bakarlariei kutsua zuela bere lanak esango nuke. Gure burua ez genuen ikusten euskara mundua edo euskal kanta mundu hori modernizatzeke gai, baina bai amesten genuela musika egiteko beste modu batekin. Artze Anaizen etxean txalaparta jotzen ikasi genuen, eta, momentu batean, txalapartari gure moduko talde batean tokia bilatzen saiatu ginen. Bestalde, hasieran bai izan genuela Hammond organo bat erosteko asmoa, baina dirurik ez eta apaizen laguntza izatea espero genuen, baina urte horretan nota txarrak ateratu genituen, eta gure ametsak pikutara joan ziren. Herrikoiak diren 10 melodiak,

Guridiri esker popularizatu zirenak, talde sinfoniko (zerbait esateagatik) baten ikuspegitik azaltzea izugarria izan zen!! Modernizatzeke era bat da.

### **Ba al dakizu egun bildumazaleen harritxia dela zuen EP hori? Dirutzak ordaintzen dira.**

Ez!! Eta harrituta geratu naiz. Taldearen lehenengo zatiaren erreferentzia besterik ez da. Hasierako lagunarteko grabaketa! Ondoren, Anttonek gitarra eta taldea utzi zuen, eta denboraldi batean Pertur, eta batez ere Jaime Stinus sartu zirenean, taldeak beste itxura bat hartu zuen!!

### **Ba al zenekien Ama kantu psikodelikoa Pentecostes Vibrations: Spanish Xian Garage Psych & Beyond 1969-1979 bilduman jasoa dagoela?**

Ez!! Beste harridura!!

### **Disko horretan Espainiako Colegio Mayor eta seminarioetan sortutako talde ye-ye-en kantauk daude bilduta. Zuen burua katolikotzat zeneukaten?**

Urte haietan nork ez zuen bere burua katolikotzat? Jaiotzetik izen bat dugun bezala, eliz eta erlijio katolikoaren kide ginen! Zalantzan jartzen ez den egoera zen. Urte horietan aldaketa nabarmenak gertatzen hasiak ziren, eta "katolikotasuna" ere zalantzan jarri zen, bai eta sarritan ukatu ere. Seminarioko urteek eragin handia izan zuten gure orduko bizitzan, baina egunetik egunera, lokarri horiek apurto eta sekularizazio etorri zen.

### **Non jotzen zenuten? Ikastolen jaiaren egindako kontzertu batean jasotako elkarrizketa bat aurkitu dut Interneten, Argia-k argitaratua, 1967an; bertan, "apaiz-gaiak" zinetela aipatzen da.**

Herriko festetan, batez ere. Nik uste, Gipuzkoako lehen talde "moderno" eta dena euskaraz kantatzen zuena izan

ginela, eta horrek ere bere inportantzia zuen urte haietan, Euskal Herriak bizi zituen momentu haietan, alegia. Orduko "Sala de Fiestas" lokaletan ere dezente jotzen genuen: Azkoitia, Mutriku, Tolosa... eta sortu berriak ziren Ikastolen alde egiten ziren jaialdietan ere bai, zer esanik ez! Apaiz-gaiak ginen hasiera batean, baina Jaime eta Pertur, eta batez ere Mikel Kamino, gure zirkuluan sartu ziren momentutik apaiz-gaiak alde batera geratu zirela uste dut! Gudan influentzia pila bat izan zuten taldekide gisa.

### **Horrekin batera, elkarrizketa horretan Ez Dok Amairu mugimenduari alderatzen zaituzte kazetariak. Mugimendu horren barruan zegoen Enarak? Garai hartako zeintzuk talde maite zenituzten?**

Ez Dok Amairukoekin hartu-eman bagenuen, baina ez taldekide bezala. Hartu-eman pertsonala zen, elkar ezagutzen baikenuen. Jaialdietan parte hartu genuen, kontaktu ugari egin, baina ez taldekide gisa! Nik uste momentu haietan "extrañoak" ginela. Euskal Herriaren gitarra eta euskara uztartu zirenean, desegokitasun bat gertatu zen: Kristoren "Nobedadea" izan zen Lourdes, Benito, Mikel... euskaraz eta gitarrarekin ikustea. Hori ez zela Euskal musika!!! Euskal musika txistu eta otxoteen ingurukoak zen!! Adibide bezala Nemesio Etxanizek esandakoa: Eibarko Lehen Euskal Musikaren txapelketan parte hartu genuen, eta finalera ere iritsi. Nemesiok esan zigun finalera iritsi ginela jendea, gazteak, erakartzeko asmoz, baina ez "entendidoek" gure lana gustuko zutelako! Nemesiok, berriz, jotzen ikusi gintuenean, bere musika-lanak ikasteko eskatu zigun, kantatzeko eta grabatzeko xedearekin, baina garai hartan gure gustuak oso urrun zeuden berak egiten zuen musikatik; hortaz, aukera hori baztertu egin genuen, ez baikenen bere lana baloratzeko gai izan. Berak, ordea, bai zuela gogoko gure bidea!!

### Frankoren erregimenaren Polizierekin edo Guardia Zibilearekin arazorik izan al zenuten taldea zela-eta?

Talde bezala ez! Jaialdiak antolatzen zirenean, jendea zorroztasun osoz ibiltzen zen dena prestatzen. Horrekin batera, jaialdiak ugaritzen hasi zirenean, beste oztopo jarri ziguten: Partaideen erdiak profesional-txartela behar zuen eduki. Horretarako azterketa egin behar zen, eta guk beste askorekin batera, tartean, Ez dok Amairuko gehienak, azterketa egin beharra izan genuen Donostiako Perlan. Gainditu eta "Carnet de circo y variedades" eskuratu genuen. Behin txartel hori edukita, jaialdian parte hartzeko libre ginen.

### Hitz egin dezagun taldekideez, ETako kide zen Perturrek taldean jo zuen, ezta? Bai eta gerora, Orquesta Mondragonen aritutako beste musikari batek ere.

Aldaketa bakarra izan genuen formazioan, hain zuzen, gitarra jolea. Lehendik eginkizun hori Arrasateko Antton Lopezen eskuetan egon bazen ere, momentu batean, bere bizitzari beste bide eman nahi zioela-eta, Jaime Stinus gaztea sartu zen taldekide. Gitarra jole oso trebea zen, ikasteko eta inprobisatzeko erraztasun paregabekoa. Hilabete batzuetan taldea utzi behar izan zuen, ikasketak tarteko, eta tarte horretan Pertur sartu zen. Bi irudi gordeak ditut: bata, gitarraren akordeak eskuineko eskuekin marmatzen; eta, bigarrena, berriz, gustuko zuen Natxo de Feliperen kanta bat jotzen, "zergatik zara zu mitozale...". baina oso erritmo berezi batekin joz. Berriro Jaime agertu zenean, momentu batzuetan biekin jotzeko aukera izan genuen. Geroztik, Jaimerekin grabaketa bat egin genuen, Urnietan, gure diskoa grabatu genuen toki berean, baina Herri Irratirako, Nikolas Aldairekin, berak zuzendutako grabaketa



interesgarri batean. Grabaketa luzea izan zen, kanta pila bat jaso genituen, orduan jotzen genituen guztiak; Jaimerekin jotzen genituenak, hain zuzen ere. Lehenengo diskoarekin zerikusi gutxi zutenak. Handik urte batzuetara, Nikolasekin izandako telefonoko hizketalditxo baten bitartez, jakin nuen sute bat izan zutela Herri Irratian eta grabazio dezente bertan kiskali zirela, tartean gureak!! Hau pena!!! Batez ere, momentu horretan, soinu diferente bat egiten genuelako; asmo berriak genituen... halere, soldaduska etorri zen!!.

### Eta egia al da zuetariko bat musulman bihurtu zela? 60ko hamarkadako kontrakulturak maite zuen Ekialde filosofiaren eraginez-edo? Portzierto, Filosofiako ikasleak zineten, ezta?

Antton Lopez gitarra-jole arrasatearrak taldea utzi eta beste bide batetik abiatu zen: Parisera, Guadalajara, Granada... eta 32 urterekin musulman egin zen, eta Abu Hurairah izena hartu. Egun Turkian, Istanbulen, bizi da. Gure arteko harremanak galdu ziren. Bakoitza bere eguneroko bizitzan murgildurik, erlazio hauek, bidezidorren antzera, ez erabilian, sasiz, zuhaixkaz, osinez... betetzen joaten dira, eta, azkenean, bidea desagertu egiten da. Bere gurasoak bizirik zirenean etortzen zen Arrasatera, baina ez ginen ohartu. Agian, saio bat egingo dugu bidetxo hori garbitzeko.



Filosofiako ikasleak ginen urte haietan, hirugarren kurtsokoak, baina seminarioa utzi genuen gehienok.

### Kontrakultura aipatu dudala-eta, 60ko urteetako drogekin esperimentatu al zenuten? Zeintzuk erabili zenituzten, nola? Badakit, Zugarramurdiko kobazuloetan garaiko festaren bat edo beste egin zenutela...

Drogak erabiltzen zituzten lagunak bagenituen, tartean, Xalba, hippy bat!! Gu, berriz, mutiko "zintzoak" ginen!! Seminaristak! Inozoak! Batzuek bederatzirterekin etxea, herria, bertako lagunak utzi eta internadu batera joanak. Hasieran, mojekin, gero, berriz, apaizekin. Horrek marka uzten du!! Guk drogekin ez genuen esperimentatu, orduko kanpotar taldeek egiten zuten modura. Egia esan, Xalbarekin laguntzarekin esperientzia motz bat izan genuen: Xalba aholkulari zela, behin probatu genuen pastilla bat, eta nire kasuan, ez zidan efekturik egin. Ez nuen sekula ezer gehiago probatu!! Drogek gerokoak direla esango nuke! Bestalde, Zugarramurdin ez, baina Larraitzen, Txindokipean, bai egin genuela nola-halako jaialdi bat, eta orduan bai egon behar izan genuela Guardia Zibil, abokatu eta Obispoarekin ere!! Liburu bat ere idatzi zuten. Gau hartan droga, larru jotze, sakrilegio eta antzeko gauzak gertatu omen ziren!!! Gu enteratu gabe!! Azaroaren 1ean izango zen, behe-lainoa, ihintza, hotza... bata besteengandik gertu geunden berotzeko, eta edateko ere bazegoen: ardoa, koñaka, kafea... Horrelako drogak, baita manta bat edo beste ere, eta norbait kanpoan geratuko zen hotzez, eta imajinatuko duzu zer gerta zitekeen manta horien azpian... eta kristoren astakeriak idatzi ziren horren inguruan!! Gu, berriz, larri ibili ginen, mikroek eta ekipoak kristoren zartadak ematen zituzten, behe-laino horren ondorioz, eta oso zaila egin zitzaigun horrelako toki batean jotzea.



# Jordi Fornas

Pau-Joan Llop

Pop diseinua, 60ko hamarkadako Katalunian



Arteetan eta diseinuan sarritan erabiltzen dugu “zigilua” kontzeptua autore bati, garai historiko bati edo mugimendu artistiko bati lotutako estilo grafiko definitzeko. Hala, badakigu *Modrian zigilu*-aren atzean artista holandarraren kolore primarioak eta konposizio geometrikoak daudela; Müller-Brockmann Eskola suitzarraren ordezkaria dela, diseinu arrazionalista eta erretikulatuaren bitartez; edo Mariscalen ilustrazioak edo iruditeria Bartzelona 92ko irudi bihurtu zirela.

Jordi Fornasen (Bartzelona, 1927–2011) kasuan, bere lan grafikoaren identitate-marka osagai askoren batuketa da: bere diseinuetan erabiltzen zituen baliabide grafikoak; Kataluniako kulturaren une historiko jakin bat (60ko urteak), eta sektore editorialaren eta diskografikoaren ekoizpen grafikoaren zati handi baten diseinatzailea izan zela, bai eta hamarkadako horretako autore eta interprete askoren produkzioarena ere. Jordi Fornasen lan grafikoak, gainera, 60ko eta 70eko Kataluniara eramaten gaitu.

Katalanez grabatutako 7” eta LPen bilaketa melomanoak eraman nau Fornasen obran sakontzera. Gutariko askoren zaletasuna da arkeologia musikala: zenbait musikari eta interpretatzaileen diskoak deskubritu eta eskuratzea formatu originalean (azalak, hitzak, biniloak, eta abar). Nire kasuan, interes musikala hori oso lotuta dago diseinu grafikoarekiko dudan interes pertsonal eta profesionalari. Hala, biniloak bilatuz eta harrapatuz nire kezka musikalak asetzen nituen bitartean, lan horiek ikuspegi grafiko batetik ere erakarri ninduten: aurkitzen nituen diskoek abangoardiako atmosfera eta estetika arnasten zuten, zaharrak izan arren.

Jordi Fornasen lan grafikoarekin izan nuen lehendabiziko harremana subjektiboa izan zen –kezka musikalek eta grafikoek baldintzatuta-, baina, diseinatzaile profesionala naizen aldetik, harreman hori bere obra grafikoan aurkitu nituen aspektu interesgarriek ere eragin zuten: Azal guztietan ageri zen marka grafikoa (autorearen beraren estiloa), baliabide grafikoak errepikatuz: tipografiak, fileteak, argazki erreak,

eta abar; koherentzia grafikoa Edigsa diskoetxearen diseinuan, azaletan lengoaia komun bat mantenduz, bai eta erretikula zehatz bat (pieza baten maketazioa markatzen duen diseinua eta konposizioa) kontraletan ere; lengoaia grafiko pertsonala, bai eta desberdina ere, garaiko diskoekin alderatuz, zeinak abangoardiako izaera eta kutsu europarra eransten zizkien; eta, amaitzeko, tipografiaren erabilera modernoa, asmo grafiko indartsudun konposizioen bitartez.

## Kultura katalanaren eraikuntza grafikoa

Bartzelonako Sant Jordi Arte Ederren Eskolan ikasi zuen Jordi Fornasek. Bere lan guztia piktorikoa izan zen, 1959ra arte; urte horretan, hain zuzen, Meyba oihal-enpresa katalanean hasi zen lanean. Bertan, Sandro Bocola diseinatzaile italiar-suitzarra ezagutu zuen, eta Bocolarengandik jaso zituen gerora bere estiloa zehaztuko zuten baliabide grafikoak: *letraset*-aren erabilera (tipografia digitalak baino lehen erabiltzen ziren laminak, tipografia transferigarriekin), tipografiaren eta



katalan errenazentista eta progresistari modu zilegi eta espontaneoan lotutako estilo grafiko oso-oso berezi baten sortzailea da (Fornas)". Azaldutako ibilbidearen ostean, "katalantasunaren grafista" bihurtu zen. Daniel Giralt-Miracle arte-historialariaren aburuz, identitate-marka horren formula honela lortu zuen: "pop-a ikonografian eta arrazionalismoa tipografian konbinatuz". Horretaz gainera, "aire freskoa ekarri zion arlo grafikoari".

Horrekin batera, Jordi Fornasen proposamen grafikoek izandako


onarpena ere nabarmendu behar da, haietariko batzuk txundigarriak baitziren aldaketa eta ezagutza berriak nahi zituzten ikus-entzuleentzat. Halere, ikus-entzuleak katalanez egindako liburu, aldizkari eta diskoen bultzadarekin identifikatu ziren, diseinu horren bitartez. Satué-ren arabera, katalanez argitaratutako produktu kultural horiek "Fornasen ereduaren antzekoak behar zuten izan, kalterik egiten ez zuen epidemia bisuala barreiatuz, baina era berean, ideologikoa eta militantea". Fornasen hautu grafikoak "berotasun handiarekin onartu ziren, erosteko


egintza solidarioari banaezina zitzaion *fer pàtria* (aberria egin) sentimendu sakon eta diziplinatuari esker".

Jordi Fornasek ez du inolako aitortza publikorik jaso, eta ez da diseinu katalanaren panoramako figura bihurtu, neurria handi batean, ez zuelako bere burua diseinatzailatzat, pintoretzat baizik. Bere proposamen grafikoa, ordea, irudi modernizatzaile eta nazioartekoa behar zuen sektore kultural batek barneratu zuen, eta irudi berritzaile horrek, halaber, irrikatutako aldaketa kultural, politiko eta soziala islatu zuen; horren erakusle,

etxe katalan gehienetan dauden liburu eta diskoak: pop (popularra) kulturako sortzaile bati egin ahal zaion omenaldirik onena.

**Oharra:** Pau-Joan Llop Naya 131. gd-ko diseinatzaila grafikoa da, bai eta irakasle asoziatua ere, Lleidako Unibertsitatean. Natros Sols kolektibo "modernistako" kidea ere bada.





Xabier Sagardia

# “Morelen asmakizuna”

Zientzia-fikzioaren  
gailur ezkutua

**Zientzia-fikzioa letra larriz idatzitako literaturarekin bateragaitza dela uste duen horietakoa bazara, orduan, ez duzu irakurri *La Invención de Morel* eleberria. Adolfo Bioy Casares idazle argentinarrek argitaratu zuen 1940an. Pitzadurarik gabeko goi idazlana da.**

*Morelen asmakizuna* hil aurretik irakurri behar den liburua da, genero fantastikoa arbuaiatuta ere, Bioy Casaresek gure eskura jartzen duen argumentua – eta berau garatzeko eta askatzeko erakusten duen abilezia–, literatura unibertsalaren onenetakoa baita: bere doitasuna parekatzerik badago, baina ez gairiditzerik. Ahaztu zientzia-fikziozko nobela bikain baina *best-seller* itxurako idazkera dutenak, hau da, eraginkorrek –eta mamitsuak askotan gaiari dagokionean–, baina literaturari erreparatuta, arinak edo pobre samarrak. Hemen goi literaturaz ari gara, kultura eta jantzia, genero fantastikoa maila altuago batera daramana.

## Ahalik eta hitz gutxien argumentuari buruz

*La Invención de Morel* Justizia atzetik duen iheslari batek –ez dugu bere izena ezagutzen– idatzitako egutegia da. Irla galdu batean ezkutatu da (Villings dela uste du, baina ez dago seguru). Uhartea, kanpotik barrura hiltzen duen gaixotasun arraro baten fokua omen da. Bertan museo bat, kapela bat eta igerileku bat daude, 1924. urte aldera eraikiak. Irla hutsik dago, edo hori uste du protagonistak. Izan ere, portaera bitxia erakusten duten turista batzuk agertu dira bat batean. Ezusteko bisitari horiek harrapatu edo salatuko duten beldur, iheslaria uharteko zingiretan ezkutatuko da, eta handik zelatatuko ditu. “Gaur, irla honetan, mirari bat gertatu da”, idazten du, aztoratuta, bere egutegian. Ez ditugu, nahita, argumentuari buruzko

pista gehiago emango; irakurraldia guztiz gozagarria egiteko, zenbat eta gutxiago jakin, orduan eta hobe.

## Hilezkortasuna eta maitasuna


Lehen orrialdetik, atmosfera kezkarri batean murgilduko gaituzte protagonistaren gogoetek. Argitu beharreko misterioa ez ezik, bakardadea eta biziraupena ere izango ditu kezka nagusi iheslariak. Horregatik, akaso, eta irla galdu batean dagoelako, Robinson Crusoe gogora ekarriko dio irakurleari, Casaresen nobela Daniel Defoeren eleberritik urrun badago ere. Joseph Conrad-en giro itogarriak sumatuko ditu, bai eta Jules Verne eta G.K. Chesterton idazle gogoangarrien irudimen handia ere. Eta nola ez, H. G. Wells-en *The Island of Doctor Moreau*-ren itzalaz jabetuko da. Ohartu zarete zeinen antzekoak dira Moreau eta Morel izenak? Adolfo Bioy Casares izen itzaltsu horien guztien pare dago, *La invención de Morel* eleberriaz mintzo garenean. Bertan jorratzen diren gaiak (nagusiak edo ez), hilezkortasuna eta eternitatea, bakardadea, protagonistaren baitan ematen den borroka (burua galdu ote du inguratzen duen errealitatea ez sinestekoa bihurtzen denean?), pertsonaiek hartutako erabakien etika... zorrotasun eta zehaztasun miresgarriaz lantzen ditu idazle argentinarrek. Baina *La Invención de Morel* are erakargarriagoa egiten duena bere zama erromantikoa da. Korapiloa askatzen joateko ezinbesteko elementua izateaz

gain, maitasunaren indarrean datza eleberraren gakoetako bat.

### Eragina

Morelen asmakizuna ez da eleberri arraro bat. Edozein liburu dendan erraz eskura daiteke. Sinistuta gaude ordea, ezagunagoa beharko lukeela izan. Edonola ere, bere eragina handia izan da, eta ez gara oso urruti joan behar hori egiaztatzeko. *Lost* telesail arrakastatsua Morelen asmakizunean inspiratua dago. Areago, omenaldia egiten diote laugarren denboraldiko laugarren episodioan: Sawyer izeneko protagonista, Bioy Casaresen nobela irakurtzen agertzen da. Alain Resnais-en *L'année derriere a*

*Marieband* (1961) pelikula aztoragarria ere *La invención de Morel*-en inspiratuta dago, eta Emidio Grecok *L'invenzione di Morel* filma zuzendu zuen 1974an. Baina eleberri honen zale amorratu garenok –zenbat laguni utzi diogu liburua, zenbat aldiz galdu, berriz erosi eta berriz irakurri!– liburuaren bikaintasunaren pareko pelikula noiz egingo itxaroten ari gara oraindik. Zinez mereziko luke. Izan ere, Bioy Casaresen lagun mina zen Jorge Luis Borgesek nobelaren hitzaurrean idatzi zuen bezala: “Egilearekin tramaren nondik norakoak aztertu ditut, berrirakurri ere; ez zait zehazgabea edo hiperbolea iruditzen perfektutzat jotzea”.



poppilulak@gmail.com  
facebook.com/poppilulak  
@poppilulak

